

MIKEL ANTZA

Lehen bilduma 82-84



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1984 Mikel Antza

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1984ko abendua

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

-A aldea-

Suzko gezi bat bezala

1982ko maiatzaren 13an idatzia.

Urte berean «Irun Saria» eman zioten Milagros Bidegain, Juan Maria Lekuona, Andu Lertxundi, Jose Antonio Mugika eta Antonio Zabalak.

1983ko otsaileko SUSA 7.ean argitaratu zen bertsiotat.

Urte bereko azaroan C.A.P.ek beste bertsiotat eman zuen argitara. Espero dezagun hau izango dela azkenengoa.

Beren liburua argitaratzeko asmoz argitaletxe batetara joan eta ordainez itzulpen batzu egin behar zituztela esan zieten poetei.

*«...Suzko gezi bat bezala
bizitza landetatik doa
Manitu Handiaren baratzera».*

Waka-Ho

*«Gaiztoaren gezi suz eraixeki guziak
iraungi ahal ditzazuen»*

Leizarraga,

Ephesioei epistola VI- 16

Waka-Ho (uaka-jo irakurri) haur zelarik gurasoak galdu zituen. Onondagas irokes tribuko agure zaharrenak hartu zuen babesean eta aitona horren ahots leunak deskribatutako eszena eder-rak, ipuin lilurakorrek, betirako pausatu ziren Waka-Horen irudimenean. Lur hobeagorik ez luke aurkituko halako haziak. Waka-Horentzat hitz bakoitzak kolore bat zeukan, arnasaldi bakoitzak erritmo bat adierazten zion. Eta hala, agurea zaharturik hil zenean, Waka-Hok, han, basoaren abartsuenean, negar egin zuen. Eta gero, aitonaren errautsak eskuan hartuz haizeak eramane zituen arte begira egon zen. Arratsean, hitzak bata bestearen atzetik erten zitzaizkion:

«...haizeak ajeatzen duen gorputz zimela
errauts da
eta errautsa landetan barreiatzen da
lore eta fruituen bidez nigana etortzeko...»

Waka-Horen haurtzaroa bakartia izan bazen -agurearen laguntzak soilik ezkutatzeko zuen barkadadehori-, gaztaroa are uzkurrago eta beste

gazteengandik aldenduago igaro zuen. Txikitan tribuko beste haurrak ezberdin begiratzen zituen, nahiago zuen mila aldiz agurearekin baso-
etako babes ilunean pasiatu, solasean, haur-
jolas mengeletan parte hartzea baino.

Bakardade hori hitzez betetzen irakatsia zion agureak, eta orain, hura aldendu zelarik, atsede-
neko orduak ipuinak bergogoratzen ematen zituen. Horretan eta arkuz tiratzen ere aritzen zen, laister tribuko tiralari onena bilakatu zen arte.

Aitonak kontatutako ipuinak bergogoratzen zituenean beti asmatzen zuen zerbait berria, hemen edo han sartzeko... Bere bizitza aurrera zihoan beste asaldadura haundirik gabe. Gainera, gutxinaka, tribuko haurrak hurbildu zitzaizkion, asmatzen zituen ipuinak eta esaten zituen poemak oso ederrak bait ziren (tiralari on izatearen ospeak ere bazuen horretan zerikusirik). Euria edo elurra ari zuen neguko egun hotzetan, Waka-Horen «tipi»a adin guztitako haur eta gaztezik beterik egon ohi zen. Eta, Waka-Hok, agureari ikasi zion ahots leunez esaten zituen irokesen tribuetako kontu zaharrak.

Horietako egun batetan, otsoak kanpamentu-
tik hurbil zebiltzan gaua zen, auhen batzu en-
tzun ziren baso aldetik eta gero eztanda bi.
Waka-Horekin zeuden guztiek arnasa eten zuten
eta txintik atera gabe adi-adi geratu ziren.
Waka-Ho izan zen jeikitzaera ausartu zen bakarra,
larru lodia gainean hartu eta gezi-arkuz hornitu-
rik gaueko elurretara erten zen, basorantz.

Beste eztanda batek hautsi zuen elurraren
erori malgua eta otsoen oihuak areagotu ziren.
Basoaren argiune baten erdian gizon zuri bat ze-
goen, otsoz inguraturik eta antza zenez handiki
zauritua odola bait zerion ezkerreko saietsari.

Waka-Hok trebeki jaurtiki zituen geziak; eta
bat, bi, hiru otso geratu ziren hilik elurretan, ba-
koitza. putzu gorri baten erdian. Besteek ihes
egin zuten. Ordurako konorte gabe zegoen zau-
ritua bizkar gainean hartu eta «tipi»ra eramán
zuen.

Une hartatixe aldatu zen bere bizitza. Gazte
hark Edgar zuen izena eta irokesen hizkuntza
ezagutzen zuen; sentsibilitate handiz entzun zi-
tuen Waka-Horen poemak zauria sendatzen zi-
tzaion bitartean tribuarekin igaro zituen egune-

tan. Gizon hura biziki hunkitu zuten Waka-Horen poemek eta behin Waka-Ho poemak esaten ari zitzaiola fabore bat eskatu zion. Otsoek zauritua gertatu zen gau beldurgarri hartan zaldia ere galdu zuela eta zaldian poltsa balioso bat zera-mala kontatu zion Waka-Hori. Hura ekarriko balio asko eskertuko liokeela.

Waka-Ho segituan abiatu zen gizon hark seinalatu zion baso alderantz. Azkar baino azkarra-go topatu zuen zaldiaren hezurdura, eta alboan larruzko poltsa.

Poltsa ikustearekin Edgarren begiak distiratsu jarri ziren eta arduratsuki barnean bilatzen hasi zen. Lehenengoz likido marroia zeukan botilatxo atera zuen eta tragoska bat hartu ondoren, poltsan bilatzen jarraiki zen. Liburu bat atera zuen bertatik eta honela esan zion sendatzen ari diren gaisoen ahots sakon, ahul eta lilurakorraz: «Nire hizkuntza irakatsiko dizut...»

Poema liburu bat zen eta uda baino lehen Waka-Ho liburu hura goitik behera ulertzeko gai zen. Edgarren laguntza sutsua zen, eta goizaldeko orduetan ere aritzen ziren; Waka-Ho ingelesez mintzatu arte. Edgarren zauria segituan sen-

datu zen, eta bazuen horretan botilatxoko likidoak zerikusirik, baina, oraindik idazten irakatsi nahi zion Waka-Hori.

Udararekin botilatxoaren likidoa agortu eta Edgarrek alde egin behar izan zuen. Waka-Hok bazekien idazten eta Edgarrek opari bat utzi zion: poema liburua eta orri zuriz osatutako liburuska.

Waka-Hok liburua mila aldiz irakurri ondoren, laister, hizkuntza hartan idazten hasi zen, baldar hasieran eta gero eta trebekiago orriak betetzen joan ziren. Orri zuriak bukatu zitzaizkionean, behin eta berriz irakurri zituen (larrugainean idazten saiatu zen, baina ez zeukan paper elurtuaren lilura Waka-Horentzat). Edgarrek oparitutako poema liburuan ikusi zuen antzera, izenburu bat idatzi zuen liburuskaren hasieran: «Suzko Gezi bat Bezala...» eta eskeintza ere ipini zuen beste liburua imitatuz:

«Handa-Kari, haur nintzelarik jaso ninduelako eta zaindu eta dakidan guztia irakatsi, liburu hau, Onondagas irokes tribuko Waka-Hok».

Orduz geroztik ez zuen ondo lo egiten Waka-Hok, ezinegonaren txindurriek atsedena eragozten zioten. Ideia bat zebilkion buruan: ikusia zuen Edgarrek eman zion liburuan helbide bat, Boston zeritzon herriko kale batena, liburua argitaratu zuen argitaletxearena hain zuzen.

Bestela ezin zitekeen izan eta, behin batean, gehiago itxaron gabe, larruzko jazkirik dotoreena ipini eta kanpamentutik aldendu zen eguzkiaren printzek oraindik baso zabalak urreztatu ez zituen udazkeneko egunsentian. Inor ohartu gabe. Boston hirira ailegatzeko erabaki irmoa hartua zuen.

Oinez legoa asko ibili zituen Albany herriraino, beti, pardelean liburuska estutuz eta zenbaitetan bidaiako arriskuetatik salbatzeko arku-geziekin zuen abilezia erabiltzera behartuta. Albany larru merkatari batekin tratutan hasi eta kastore larruak saldu zizkion; lortutako diruaz dilijentzian txartela hartu eta Bostonako bidaia luzean abiatu zen berriz ere; bidaiaren erdia behintzat burutua zuen.

Bostonainoko bidaia aipatzeak ez du merezi, Waka-Hok era guztitako irainak jasan behar izan zituen eta ez zuen hitzik atera, soilik noiztik behin liburuska atera eta irakurtzen igarotzen zituena ordu luzeak.

Boston hirian lilurak gainditu zuen Waka-Ho. Albanyn ikusitakoa nahiko txundigarri izan bazen, hura perspektiba guztien aldaketa zen beretzat: kale luzeak begiratu eta zorabioa sartzen zitzaion eta etxeak burura eroriko ote zitzaizkion beldurrez ibili zen kale estuetatik. Lilurak eragozten zion zurien mespretxuaz ohartzea. Jendeak zioen albotik pasatzean: «Begira ezazue! indiyoko nazkagarri bat».

Argitaletxearen helbidea aurkitzea kosta zitzaion, inork ez bait zion haren berri eman nahi, baina aurkitu zuen. Bi pisutako egurrezko etxe dotore bat zen eta atean gaizkin itxurako atezain indartsua zegoen. Honek nahiko desgogora eta arku-geziak bertan uztera behartu ondoren sartzeko baimena eman zion (nahiko arraroa bait zen ingelesez hain dotore mintzatzen zen irokes higuigarri eta usai-txarreko bat).

La hiru ordu aspergarri itxaron behar izan zituena artega gela txiki eta estu batean editorearekin egoteko baimena jaso arte. Urduri, Waka-Hok atea bultzatu zuen... bere aurrean begirada zorrotzeko gizon ilun bat, nahiko zahartua, eskuak higidura zakarrez igurtzen zituena, begizulo sakonak nabari zitzaizkion eta kopetan inoiz ezabatzen ez ziren ardurazko hiru zimur. Argalaz, hezurtsua eta zigarro bat zeukan ezpain lehorretatik zintzilik; eskuz seinalatu zion esertzeko.

Waka-Hok, begirada jaitsi gabe, baina lotsati, eseri eta liburuska eskuratu zion. Nazka nabarmenez eta apika gorroto piska batez hartu zuen editoreak poema liburua, egunen igarotzeaz eta bidaia luzeak ajeaturik zegoen orri mordoa.

Editorearen lehen hitzak «poemak, e?» mespretxati bat izan zen eta gero tabakoak zakartutako ahots kraxkatu batez ozen irakurri zuen, «Suzko Gezi bat Bezala...», «ja, ja» indar gabe batekin bukatzeko.

Waka-Hok inoiz sentitu ez zuen zerbait nabaritu zuen bularrean, mina, min estraino bat, bidaiaren nekeak, hiriaren lilurak, urduritasunak

eta gizon haren ahots zakar eta iraingarriak sortutako mina. Baina, editoreak dedikatoria irakurri zuen farre algaraka hasiz, eta arnasestuka, Waka-Hori ezertarako betarik eman gabe irakurtzen hasi zen:

«Triste kantatzen du buztan-zuriak
arbola horren gainean
eta hostro bat erortzen da
lurrera eta haizeak altxatzen du
Haizeak eramaten du ere errautsa
eta kea.

Haizearen menean mugitzen dira
landareak baratzean
Manituk bidaltzen digu haizea
eta haizeak eramaten gaitu beregana
suzko gezi bat bezala
bizitza landetatik doa
Manitu Handiaren baratzera...»

Bukatu zuen eta berriro ere «poemak, e?» lehen bezala, eta gehitu zuen, «inditar batek ingelesez? um, um, um» eta isilunea. Gero aitakorki, liburua bueltatzeko keinua egiten zuen bitar-

tean, esan zion Waka-Hori: «Bai, arazoa da poemak direla... orain ez asko poema liburu bat argitaratu genuen, E.A. Poe zeritzon urlia batek idatzia: «Tamerlane and other poems» eta desastre editorial bat izan zen, orduz gero poema liburu gehiago ez argitaratzea erabaki dugu». Isildu zen, baina Waka-Hok, beraganako gorrotoa nabaritzen zuen gizon haren hitzetan, erabiltzen zuen doinuan, hau aditzen zuen: «ja, ja, indio batek poemak idazten ditu eta gainera ingelesez... ja, ja, eta ez hori bakarrik, tontolapiko honek argitaratu nahi dizkik; inditar hauek zazpi-garren zeruan bizi dituk, ja, ja, ja». Eta orduan editorea hizketan jarraitu zen: «Ja, ja, indio bat poemak idazten eta gainera ingelesez, ja, ja, ja...».

Waka-Ho ez zitekeen aulki hartatik mogitu, itsatsirik bezala zegoen eta aditzen jarraiki zitzaien, «Dena dela, oso oker ez banago zu irokesa (mespretxu eta gorrotoz hitz hau) zara eta zuek edukiko dituzue kontu zahar batzu, agian horiek ingelesez idatzi eta ematen badizkidazu argitaratuko nizkizuke poema (mespretxuz) hauek», eta liburuxka bota zion.

Waka-Horentzat gehiegi izan zen, aulkitik jeiki eta leku hartatik atera zen korrika editorearen barre nekaturia belarrietan zuelarik. Atezainari bultzada eman eta arku-geziak kendu zizkion.

Bostongo kaleetan galdurik pasa zuen ia egun guztia eta gau aldera noraezean eta goseak sabela gaztigatzen ziolarik jendez gainezka zegoen lokale ketsu batean barneratu zen. Taberna hartan sartu bezain pronto han zeuden mozkor guztiak algaraka hasi ziren, bazeukaten gauerako dibertsioa. Burlaka eta iseka hasi zitzaizkion Waka-Hori eta hau larriturik alde egiten saiatu zenean ez zioten utzi. Heldu eta barrara eraman zuten, han mozkorrek zioten, «edan ezak suzko ura, ja, ja, ja! gustatuko zaik, uooojo-ooiiiiii!!!!» inditarren garraisiak lotsagarriki imitatzeko zituzten. Hiru lagunak artean Waka-Hori atzetik hartu eta ahotik behera basokada whisky hustu zioten. Barrenak erre zitzaizkion Waka-Hori eta gero zorabioa etorri zitzaion. Bi, hiru, lau alditan errepikatu zen berbera eta guztietan irainak entzun behar izan zituen. Azkenerako taberna hartatik ostikoka bota zuten Waka-Ho kaleko hautsa miaztera.

Burua biraka, erabat galdurik ibili zen kaleetan zehar, negarrez oroitzen zen tribuko kideaz eta inoiz baino gehiago haurtzaroan zaindu zuen agureaz, Handa-Kaz. Gorroto bizi bat, suzko gorrotoa piztu zitzaion erraieran. Ohargabeen argitaletxearen aurrean aurkitu zuen bere burua.

Begietan argi berezi bat zeukan Waka-Hok, ordurarte inoiz izan ez zuena, eta makinalki gezi bat atera eta arkuan prestatu ondoren su eman zion. Suzko gezia zuzen sartu zen editorialeko leihotik eta segundu gutxiren buruan suziren baten moduan piztu zen edifizioa. Garraisiak entzun ziren leku guztetatik, eta edifizio barnean ere bai. Leiho batetik editoreak salto egin zuen, erropak suak harturik, eta lurraren kontra hautsi zuen burua.

Suaren lilura galdu zuenean, antxitxika egin zuen alde handik Waka-Hok, jendearen kontra behaztopa eginez berriz ere galdu zen kaleetan. Biztanleak segituan hasi ziren bere bila.

Tabernaz taberna ibili zen gertatutakoaz ezer ez zekitenek eskeintzen zioten «suzko ura» edanez eta irokes frase luzeak errezitatzen. Tabernako mozkorren trufarako hala zioen:

«gezi bat naiz, hostro bat. ernetzen
ez den hazia
gorrotozko gezi naiz
hostro iharra
zoriontsu bizi nintzen eta orain bizia ez da...
eta orduan Handa-Kak
basoan aurkitutako hartza hartu eta
beldurrezko tximista
eta ni...»

Hero desioz egarri jendetza hiritik zebilen inditar hiltzailearen bila. Taberna batean aurkitu zuten whiskyz moskorturik. Jo zuten odoldu arte eta soka bota zioten lepora; arrastaka erabili zuten hiriko kaleetatik, azala urratu eta desagertu zitzaion, eta plaza nagusian astigar sendo batetan urkaturik hautsi zitzaion bizkarrezurra, eten arnasa, lehertu birikak, heriotzaren plaze-rea...

Hil zen Waka-Ho, liburus karen orriak kaleetan zehar haizeak barreiatzen zituen bitartean.

Berunezko soldatutxoak kolekzionatzen zituen ministroa

1982ko udako egun batez idatzia.

«Donostia Hiria VI Ipuin Lehiaketa»n akzesita jaso zuen 1984ean.

Ipuin honetan agertzen diren pertsonaiek errealitateko norbaitekin antza txikiena ere balute, abisatu, gustora ezagutuko genituzke eta.

«Kartzelek istorio isilak dauzkate, eta bokisek, eta baita berunezko soldaduek, hutsik daudelarik. Hutsik!»

Jean Genet

Orain dela urte asko, hainbat, liburu zaharrenek ere errejistratzen ez dutela, gertaera krudelak bizi zituzten lurralde hauek. Bazegoen orduan, orain basamortu bihurtu den paraje batetan, laku zabal bat; uraren kolore beltzak adierazten

zuen bere sakontasuna eta azaletik altxatzen zen lainoak kutsatzen zituen bazter guztiak.

Lakuaren urak eraikuntza erraldoi baten zimendarriak miazten zituen. Murraila labain batzu goratzen ziren bertan berrogei bat metro-taraino. Harriak, Orienteko edo Plutoieko lurretatik bereziki ekarri zituen norbaitek; agian, jauretxearen lehen biztanleak. Eta itxura leun bezain irmozko harri horiek eskeintzen zioten balizko bidaiari nekatuari aldegitoko abisu gardena. Ez zen inoiz, sekula santan kanpotarrik ausartu Jaurregiko pasealeku oparoetan oin buzundua ipintzera. Bertan bizi bait zen Ministroa; «Ministro jauna», Gazteluko zerbitzari errukarriek deitzera beharturik zeudenez.

Gizon ilun eta misteriotsu bezala agertzen zen feudoko biztanleentzat metale estrainoz egindako kupula purpura horien barnean bizitza eramaten zuen Ministro hori. Zerbitzariak, amaren bular-esnea dastatu zuten bezain pronto, soldadu gormutuek, horretarako espreski heziak izan zirenak, seasketatik lapurtzen zituzten haurrak ziren. Zerbitzari onenak, gormututu ondoren, soldadu izatera ailegatzen ziren.

Negar isil eta epelezko egunak izaten ziren horiek herritar pobreentzat; hauek zeukaten kontsolagarri bakarra, haurtxoek, beraiek jasaten zuten hotza eta gosea pairatuko ez zutela pentsatzea zen. Lanerako balio gabe gelditzen ziren zerbitzariak, Jauretxean bertan zegoen hilerri txiki, abandonatu eta sasitu batean lurperatzen zituzten, horiek hiltzeko nekerik hartu gabe ere.

Bost urtetan behin jeisten zen instant batez Gazteluko atetzar herdoila gormutuek gidatutako zalditeria karkaxteko. Herritarrek une beldurgarri hori itxaroten zuten bihotza otsoentzako tranpa batetan balute bezala eta jaioberriak zeuzkaten etxeetan, negarrerako trapu beltzak ateratzen zituzten ganbarako kutxa zaharretatik, umeari azken adioak egiten zizkioten eta gelan uzten zuten. Ongi ederki bait zekiten zereginik ez zegoela zaldi eroen lehen irrintziak aditzen zirenerako.

Aldi bakoitzean, txandatur, sexu bateko ala besteko haurrak ebasten zituzten soldadu doilorek, nork daki Ministro jaunaren zein agindu kapritxosori obedituz. Erraz konpreni daiteke, he-

rrian egiten ziren ikerketa guztiak umegaien sexua aurrez erabakitzeke metodoak aurkitzera zuzenduak zirela. Zientzia ez da, halere, perfektoa gaur, eta denbora haietan aurrerakuntza asko ezagutzen bazuten ere, berbera gertazen zitzaien. Gau haietan, zaldi oinotsen oihartzunak ez entzutearren etxe guztietako bideoak ozen ipintzen ziren.

Herria, Jauregitik bost kilometrotara zegoen kokatua, lakuaren ur kutsatuetatik aparte, Gaztelua ikuitzen zuen ura usaindu ere nahi ez balute bezala. Zingira zabalaren ertzak jarraituz, sasi eta ezpelez itotako ertz tenebratsuetan barrena, eta beste biztanle guztiengandik aldendurik, etxola txiki baina txukun bat ikus zitekeen. Tximinitik gora kea zeriola, paisaje desolatu harekin kontraesan sakona egiten zuen. Basamortuko oasi bat bezala zen, lakuaren zeruak bele, erroi eta putrez josiak zeudela ahaztutzero gonbidatzen zuen txoko perfumatua. Baina ez, ez zen espejismo engainakor bat.

Nor arraio izan zitekeen haraino bizitzera joandako eroa? Dudarik gabe herrikoek maite ez zuten norbait edo norbaitzu: hiru emakume, ba-

raien ideia aldrebesengatik eta legez kanpoko gustoengatik (norbaitek gau batean, leihoetako elurra kasualidadez kentzen ari zela, idazten harrapatu zituen, esaten zenez) herritik boteak izan zirenak.

Hirutatik bik, Ministroaren soldaduen injustizia haragitan sufritua zuten. Beraien haurtxoak ordurako gormutuen lerroak loditzen zituzten dudarik gabe. Hori, elkarren arteko adiskidetasuna areagotzen zuen elemendua zen. Etxola hartara joatea erabaki zutenean, hirutatik bat haurdun zegoen, eta orain umea egin berri aurkitzen zen. Bere adur txarrerako noski, hiru egunen buruan, boskarren urtearen aldia ixtera bait zihoan. Eta gainera, mutilei tokatzen zitzaien orduko txandan, etxeko poza mutila izanik.

Nagusi eta urteen igarotzeaz adimentsuen egin zenaren izena Jolanda zen, izen estrainoa, arazorik ere ekarri ziona. Urtetan bigarren zihoana eta hirutan argienaren izena Nuria zen, beste zoritxarreko izen bat! Eta hirugarrena, gaztetasunaren freskotasuna gordetzen zuenarena berri, Arantza, izen zistagarria bere gaitzerako.

Haurri izen polit bat bilatu zioten ez zitzaizkion arazorik izan, Eneko, baina guztiek deitzen zuten «Ene-Korazon!». Izen polita, baina hiru egunen buruan ezertarako balioko ez ziona, esana bait dago soldaduak gormutuak zirela. Jolandak, tokatu zitzaion garaian sufritu zuena bizi-bizi zeukan eta haurtxoa beraiekin gordetzeko ahal zuten gutxia egin beharra zegoela deliberatu zuen. Horrelaxe jakinarazi zien besteei eta nola ez sutsu ados jarri zirela. Pentsatzen hasi eta arazoaren kokoa Jauretxearen jabea zela argi eta garbi ikusi zuten, eta beraz Jolandak gardenki esan zuen:

-Hara joan beharra dinagu, hango putre hori ikustera, erruki dadin konbentzitzera -hizkera benetan itsusia emakume honek erabiltzen zuena!

Beste biak ere, Nuria eta Arantza, horretan zeuden, baina segituan tristatu ziren, jakina bait zen Gaztelua menderaezina zela, aitaren seme-alabarik ez zela bertan sartu ez bazen gormutuen zaku barnean kloroformaturik.

Jolandak urteen poderioz kaskezurra gogortua zeukan eta halaxe esan zuen betire hizkera trakets horrekin:

-Hara joango naun, eta Ministroa konbentzitzeko poema batzu eramango ditut, jakina baita Ministroak oso gizon kultoak direla eta hemengo hau ez da gutxiago izango, ez da? Eta gainera, hemengo norbaitek idatzitako edozer irakurtzeak kilika egindo dio bere jakinminean. Gainera -gehitu zuen-, ez larritu, jantzirik politenak ipiniko ditut eta Gazteluko ate aitzinera begiak ohial batez estaliak eramango ditut, kontura dadin Ministro likits hori ez dudala han ikusitako ezer zazpi haizetara zabaltzeko asmo tentelik, oso bestelakoa dela nire helburua.

Hala ba, arratsaldeko lehen ordutarako Jolandak ehun folio zikinduak zituen poema ederrenekin. Konputagailuan sartu eta txukun-txukun atera ziren; perfume piska bat eta laxo arrosa bat ipiniz gero abiatu zen Jauregirantz.

Txalupa batetan sartu eta arraunei eragin zien fermuki, arraunketa ohitura zaharra zen herritarrentzat; ilundu baino lehen iritsi behar zuen Gaztelura, eta bide luzea zeukan aurretik. Petro-

lloan bezala sartzen ziren arraunak eta doi-doi iritsi zen Gazteluaren atetara, lakuaren azaletik bruma hori susmagarri bat altxatzen hasi zen une berean.

Ministroak, Jolanda barne-telebista monitoretik ikustean ezin izan zuen gaitzetsi harridura hasperen edukatu bat: «leñe!»; eta haren asmoak jakin zituenean ez zuen atea irekitzea beste erremediorik izan, hori egiteak burura susmo txarra eta ondorio beltzen irudia ekarri bazion ere.

Jolandak ez zuen Ministroa ikusi, begiak oiha-
lez estaliak bait zeuzkan, baina nabaritu zuen bularren parean azufrezko hatsa, metalearen hotza zerion behatz batek ikutu zion besoa esku-tatik poemak kendu zizkionean.

Bost minuturen buruan, Ministroak higidura txiki bat egin zuen aulkian eta oihuka hasi zen, segituan salako hamahiru atea ireki ziren eta bertatik ateratako zerbitzari andanak Jolanda aidean hartu zuen beheko espetxetara eramateko.

Jolandak garraisi hauek entzun zituen Ministroaren ahotik, hizkera dotorean esanak:

-Ez, ez gustatzen, poemak, zure, ez poemak, gustatzen, ez, ez -Ministroari inork inoiz entzun zizkion lehen hitzak (Ez ahaztu, zerbitzari guztiak gormututuak zirela).

Bitartean, etxolan Nuria eta Arantza urduri zeuden. Lehen eguna amaitua zen; beste bi besterik geratzen ez zirenez, zeozer egin beharra zegoen. «Ene-korazon!»ek ere nabaritu zuen Jolandaren falta, hirurak bait ziren berarentzat ama bat bezala. Esana dugu Nuria zela argiena, eta burumuinei bizpahiru bira eman ondoren, maltzurkeria nabari zitzaion ahots leunez eta Jolandaren hizkera trakets berbera erabiliz hitzegin zion Arantzari:

-Pentsa ezan Arantza maitia, Jolanda ez zeto- rren eta beste zeozer asmatu beharra zegoen. Piskat pentsatu dinat eta hik badakin behin ehunda zazpi urte betez gero herriko guztiek gafak erabiltzen dituztela, beraz oso posible dun Ministro Tirano horrek ere erabiltzea. Hau dun ene plantxo: idatziko dinat ipuin bat, berdin din itsusia ala polita, ona ala txarra, gauza dun era betezi batez egingo ditudala letrak, irakurtzeko gafak kentzea beste erremediorik ez egoteko

moduan. Hala ba, ni ere jantzi ederrenez hornituko naun eta bere aurrean ipiniko. Ipuina irakurtzen saiatzean gafak kendu beharra izango din eta nik profitatuko dinat abantaila hori gafen barilatxoan telebista kamara mikroskopiko hau ipintzeko; hala, bakarrik dagoenean bere hobby maitatuenean arituko da eta hi monitoretik adi bahago konturatuko haiz zein den bere Akiles-orpoa -hasi zen Nuria historia jakituri demonstrazioa eginez-, hor ikusitakoaz zer egin hik jakin beharko dun, zer asmatu eta nola jokatu Ministroaren grazia lortzeko...

Ez zen askosaz gehio luzatu Nuria, ipuina idazteari ekin zion eta Jolanda bezala, bigarren egunaren arratsaldeko lehen orduan lakuratu zen beste txalupa batean. Hautxoaren bizimodua bere esku zegoela jakiteaz gain beste pena batek estutzen zion bihotza, Jolandari zer gertatu ote zitzaion...

Monitoretik Ministroak beste emakume bat ikusi zuenean, dena esan behar da, piska bat eulitu zen, ez zen oso tontoa eta, baina, hala ere, bigarren bisitari ausarta aurrekoa baino gazteagoa zela ikusirik eta eskuan zeraman idazkia txi-

kiagoa zelaz ohartuz, sartzan utz ziezaioten agindu zuen interphonotik. Mila deabru histerikoren zarata ateratzen zuela atetzarrak pentsatu zuen Nuriak, eta konparazioak grazia egin zion. Ministroaren aurrean ipini zutenean, higadura xumeaz eskuratu zion idazkia; Ministroak harriduraz begiratu zuen, goitik behera eta ezkerretik eskubira, papera ere. Azkenik, gafak kentzea probatu zuen eta Nuriagandik hamar zentimetro t'erdira utzi zituen. Nuriak une paregabe hura profitatu zuen eta tximistaren abiaduraz ezarri zien gafei telebista kamarañoa.

Ipuina ez zen Ministroaren gustokoa izan. Eta berriro ere hamahiru ateak ireki ziren Ministroak eskritorio azpiko botoia sakatu bezain pronto. Nuria izan zen Ministro jaunaren hitzak aditu zituen bigarren hilkorra:

-Ez, ez, gustatu niri, ipuina, ez! -oihukatzen zuen aristokratikoki bere onetik aterata.

Gaua ekarri zuen lakuko karboniko bioxidozko lanbroak, beldurraren enbajada kupretuak hedatuz, eta usaina kupulako zirrikituetatik irris-tatzen zen bezain pronto, Ministroa bere gelatarra erretiratzen zen.

Distantzian, lakuaren beste aldean, «Ene-Korazon!» negarrez hasi zen, ez zuen nahiko ama bakarraz; bere instintoak adierazten zion zeozer falta zela, Jolanda eta Nuria hain zuen, asmatu luke psikologiko batek. Arantza berriz desesperatzeaz zegoen monitoreak lehen bipibipak egin zituenean, eta segituan imajina iritsi zitzaion.

Gela dotore bat ikusten zuen Arantzak monitorean. Ministroa begiratzen ari zena, alegia. Kortinaje oparoak, fusia eta purpura tonoak konbinatuz, denbora haietako azken karraisira, udazken giro triste eta horbeltsua ematen zioten egoitzari; gero, haritzezko mahain luze bat, eta bertan lakuaren maketa bat ikusi zituen Arantzak: gaztelu erraldoia, herria bost kilometrotara eta beste puntan, bera, Arantza zegoeneko etxola; hain ederki egina zegoen maketa hura, ke horia ere altxatzen zela bertatik. Izutu egin zen Arantza, herriko zenbait etxek bezala, beraienak ere banderatxo berde-beltz bat zeukan maketan. Eta ezertarako betarik eman gabe, mugimendu azkarrez, Arantzaren harridurarako, figura batzu hasi ziren agertzen mahaiean. Ministroarena izan behar zuen metal kolorezko esku he-

zurtsu batek mugitzen zituen. Hurbilagotik begiratu zituenean Ministroak jakin ahal izan zuen Arantzak berunezkoak zirela, soldadu batzuren erreprodukzio fidelak ziren.

Irudi horietatik batzuk zutik zeuden, besteak berriz zaldi itsusi batzuren gainean ageri ziren, zaldi gainean zaku beltz bat eramanez.

Ministroak mugiturik berunezko soldadutxoak Gaztelutik irteten hasi ziren eta lakuaren ertza utzirik batzu herrirantz zuzendu ziren, banderaxo berde-beltzak zeuzkaten etxeetarantz; besteak, Arantzaren izua areagotuz, lakuaren bestaldeko etxolaruntz gidatu zituen Ministroaren esku kupidagabeak estratega abilezia paregabeaz. Arantza konturatzen hasi zen gudaren aurreko gaueko preparakuntzak zirela, entsegu orokorra; Ministroak erritu sakaratu bezala egingen ari zena eta bere barnerako pentsatu zuen Arantzak: «Hau beldurrezko pelikula txar bat bezala da!» eta ez zion graziarik egin pentsamenduak, gainera orduantxe bertan «Ene-Korazon!»ek berriz negarrari ekin zion. Kirio atake bat jasateko baldintza guztiak betetzen zituen Arantzaren egoerak, hau da, edozer gauza gerta

zitekeen, eta gutxien espero zuena gertatu zitzaion: ideia paregabe bat prantatu zitzaion zerebeloaren bigarren eta zazpigarren zirkunbalaizioen artean.

Epea betetzera zihoan, hirugarren gauean soldaduak barreiatuko ziren lakuaren inguruan; eta hirugarren eguneko goizaldea bruma horis-kak ezabatuz jeikitzen ari zen, eguzki gorri baten islada, lakuaren azal beltzaren kontra botatzeko. Arantzak ez zion titirik eman «Ene-Korazon!», eta hau, gertatzen zenaz ohartu gabe (noski, hain ttikia zenez...), negarrez hasi zen. Arantza, entzungor, eskritorioko makina gainean makur-makur eginan, jo ta kean ari zen.

Arratsaldeko lehen ordutarako prest zegoen Arantza trajerik dotoreenekin jantzirik etxola aurreko kaitxoan; sakelean folio mordo bat zerman, bazpare, plastikozko zorroan gordeak. Eta horrela, bere beste bi adiskideak bezala, abiatu zen ahal zuen bezain agudo laku kiskailian gaindi.

Iritsi zen besteak baino denbora gutxiagoan, larrialdiak hegalkak ipini bait zizkion eskutan; hauek kendu eta zain geratu zen, pentsatuz mo-

nitore batetik behatzen zutela. Begia itxiz keinu bat egin zuen monitorea egon zitekeen aldera eta bost segunduren buruan atea ireki zen.

Arantza ez zen oso orijinala eta burutadak beti berandu iristen zitzaizkion, «mila deabru histerikoren soinua du atetzar honek», pentsatu zuen; baina berari ere, Nuriari bezala, grazia egin zion konparazioak.

Ministroak, umore txarrez kendu zion eskutitik folio mordoxka eta irakurtzen hasi zen ozen (beraz, Arantzak, Ministro jaunaren ahotsa entzun zuen hirugarren dohakabea izateko adurra izan zuen; orain ere ez ahaztu zerbitzariak gormutuak zirenik): «Berunezko Soldadutxoak», irakurri zuen Ministroak irrifarrerantz aldatu zitzaion ahotsaz. Eta jarraitu zuen:

«Enekok, bere urtebetetzean erregalu asko hartu zituen. Hauetariko bat, berunezko soldadutxo kaxa eder bat zen. Soldadutxoak oso lirainak eta ikusgarriak ziren eta berdintasun handikoak ere bai. Baina bati hanka bat falta zitzaion nahiz eta besteen moduko sendoa eta liraina izan...».

Horraino bakarrik irakurri zuen, oso alperra bait zen Ministroa; baina, asko gustatu zitzaion

eta mahaietik jauzi eginez Arantzagana hurbildu zen. Hatzamarkada batez begitako oihala kendu zion eta Arantza ia sustoz hil zen. Ministroak besoartean sendo helduz esan zion belarrira, Arantza, Jolanda eta Nuriaren hitzegiteko era traketsez piska bat kutsaturik:

-Ai! Arantza, zurekin bai egingo nukeela dantzatza!.

Eta une berean Musika-Haritik, valsea entzuzen. Jira eta biraka hasi ziren. Arantzari gertaeraren zorabioa piska bat pasatzen hasi zitzaionean, Ministroari tragoska bat nahi zuen galdetu zion. Baietz erantzun zion hark, ordurako, Ministro batek kontuan gorde beharko lituzkeen kuidado guztiak ahaztuz, eta koktela Arantzak preparatu ziezaion utzi zuen.

Arantzak edalontziko urre kolorezko likidora, poto batetatik ateratako pastila eferbeszentea erortzen utzi zuen: «preffsssss». Zurrutada batez edan zuen Ministroak eta seko erori zen marmorezko lur hotzean.

Esnatu zenerako, bere besaulki faboritoan loturik zegoen eta aurrean Jolanda, Nuria eta Arantza zeuden su handi bat pizten. Oraindik tontotu-

ta zegoen eta ez zen konturatu ongi zertarako nahi zuten su hori emakume madarikatu horiek. Laister konprenitu zuen, bat bestearen atzetik, zaldi dotore eta guzti, berunezko soldadutxoak urtzen ari ziren su hori-gorrian, hiru emakumeen dantza eta kantek lagunduta. Bihotza gelditu baino lehen, begiak begizuloetatik apur bat eskapatu zitzaizkion eta ileak tente ipini; orduan, liburu bateko zita balitz bezala hitzegin zuen, trakets, keak ilundutako ahots lardaskatuz ihardetsi zien:

-Ez ditut nik zuek bezala ikusten soldaduak! Ni, haurtxoa berunezko soldadu distiranteekin bezala pozten naiz, haiengan ikusten bait dut, noizpait herria salbatuko bada, esperantza bakarra.

Mingaina hortzen kontra trabatzen zitzaion karrasi egin nahiean eta azkenean, bai, plof!

Su purifikatzailea, Jauretxeko gortinaje zaharkituak zirela medio segituan hedatu zen korredore beltzetatik, hormak mendetako itsutasunetik esnatuz eta ilunaren domeinuak itzalenak bihurtuz. Ikuskizun liluragarri hari aidean eta zistu bizian egin zioten ihes Jolanda, Nuria eta

Arantzak, leku gorrotagarri hori uzteko irrikaz; gainera, «Ene-Korazon» negarretan erdi-itorik edukiko zuten, han, etxolan, lakuaren beste aldean.

Urrutiratzean, Gazteluari azken begirada bota zioten, zuzi bat bezala, oraindik izugarri ageri zen, eta inguruan, lakuak su hartu balu bezala, margoak berdintzen zizkion.

Ez da arrastorik ere geratu Jauretxe izugarri hartaz; soldadu gormutuei dagokienez, batzu gazteluarekin ezinbestean suntsitu ziren, beste batzu berriz, gormutuak bai, baina sudur fina ere bai eta salbu ateratzea lortu zuten. Gaur arte behintzat ez dugu haien berri izan.

Xabi «Metal» Agirreren istorio labur eta tristea (edo rockero zaharrak ez dira inoiz hiltzen)

Filme labur batetarako ideia

1982 abenduaren 26an bukatua.

Ipuin honi ez zioten 1983an «Kirikiño» saria eman.

1983ko ekaineko SUSA 8.ean argitaratu zen bertsiio mutilatu bat.

GONBITEA

Xabi «Metal» folio eta aldizkari pila baten azpian gorderik daukat; beldur ematen dit berari aurre egiteak, batez ere orain. Badakit nola bukatu zuen, baina tarteko historiak interes haundiegia dauka niretzat alde batera uzteko. Bizitza frustrante bat da (nahiz eta inork ez dezakeen esan berea biziagoa izango denik). Kantari sentitzen zuen Xabik bere burua, eta biziarekin bate-

ra joanean nabaritzen zituen Xabik bere kantak anonimotasunaren ibaiean.

Anonimotasuna dugu gaurko gaitzik nagusiena, agerira eriten gabe nozitzen duguna. Behin anonimo garenean, inor ez garenean, errazena horrela jarraitzea da. Ofizinsta edo bulegari. Zein da herri ez den baten borroka, herri bezala ezagutaraztea ez bada? Beste herrien laguntza eta elkartasuna lortzea ez bada? Zeren, zer egin dezake ezaguna ez den herri batek...?

Xabiren bizitza zainetatik eta hortzetatik zihoan... baina, berak aukeratu ote zuen hori? Zeren bila edo zerk bultzaturik sartu zuen lehen aldiz orratza? Eta zer esan nahi ote du ahots birrindu horrek beste tresnekin borroka gogorrean? Maitasuna egin ezin denean sentitu ohi dena adierazten du borroka horrek. Kontzientzia hiltzailearen kontra. Eta maitasuna zilbor paretik pasiatzen denean, sumendirantz. Basorantz. Xabik taldeko baxu jolea maitatu ote zuen noiz-pait? Eta ze zapore zeukaten musuek. Eta afeitatzen zeneko suabetasuna atseginago izango ote zitzaion bizar erdi-haziaren hazkurea baino?

Xabiren heriotza denbora gehiegiz atzeratzen ari naiz. Bere heriotzerako datu edo bukaera bereziren baten zain nago, agian? Xabik kitarra azken aldiz jo zuenean, besoko zain guztiak zulaturik nabari nizekion eta zulo bakoitzari musika beltza zeriola zin egin dezaket. Eta bere begiek kitarraren sei sokak tinkatzen zituztela ere.

egileak,
ipuina idazten hasi aurretik

Dagoeneko, Herri honen historia labor bezain tristeak, negargarriak hobe, eskeini digu beste zenbait istorio labor eta tristeren berri. Esan daiteke gure historia, maiuskulaz, eraikitzen ari gara; handik eta hemendik, ikerlari eta artistek jasotzen dituzten laguntza ekonomikoen bidez, dokumentu eta istorio bitxiak biltzen eta piltzen ari dira azken sei urteotan. Herri honen izaerari dagokion, eta inork ukatuko ez dion, kategoria iristen lagunduko dioten istorioak. Gu ere ez gara gutxiago izango eta orainarte baztertua egon den materiale interesgarri bat oina-

rritzat hartuz, ospe eta fama hori sendotuko duen porlanean gure hondar aletxoak ipini nahi dugu.

-1-

Bazkalondoko ohizko kafetxoak hartu ondoren Errenderiko (barka! Oreretako) fonotekara hurbildu nintzen. Nonbaitetik, egile ezezagunen atalean maketa berririk bazegoela jakin bait nuen. Hala zen, fonotekaren azken puntan, musika klasikoaren atal alboan eta argi ahul bakarraz argitutako sekzioan «X.M.A.» inzialak zeuzkaten zazpi kasete aurkitu nituen, oraindik prezintoa kendu gabe, -beraz, ez zituen oraindik inork entzun- («zientifikoki entzun», zehaztu nuen nire barnerako).

Zerbait deskubritzeak ematen duen afizio gehitu horrekin etxeratu nintzen; poltsan, zazpi kasete horietaz gain, egileari buruz eskeintzen den orritxoak neraman.

Egongelako besaulkian eseri nintzenerako hasi zen entzuten koadrafonikotikan lehen kas-setako lehen kanta. Whiskyz bete nuen basoa. Betaurreko beltzak jantzi nituen egileari buruzko orritxoak irakurtzeko. Dena esan beharra dago, eta aitortu behar dut ohartxoak euskaraz eta gazteleraz bazegoen ere, euskarazkoa ez nuela tutik ulertu, ekintza horretarako U.Z.E.I.k atera dituen hogeitamabost hiztegiak erabili arren. Honela zioen gaztelerazko ohar laburrak:

«**Grupo:** DESCONOCIDO

Cantante: D. Jabier de Aguirre, a. "el metales" **natural de:** RENTERIA/ERRETERIA (ORERETA) **edad:** DIECISIETE

Material y descripción: siete casetes / maquetas de muy baja calidad acústica, cantadas íntegramente en eusquera. Instrumentos que se aprecian, guitarra eléctrica, punteo (imposible determinar marca); batería y bajo, ruidos extraños.

Entidad dondante: "Lagunac".»

Honaino iritsiz gero zigarreta indio bat piztu nuen, pipada luze eta patxarosoak emanaz. Whiskya erraz irristatzen zen. Kasetaren lehen aldea bukatzerako ba zegoen nire burua mar-txan.

-3-

Denbora hartan, zazpi kasete haiek deskubritu nituen garaian, musika moeta hori aditzea izugarria zen.

Nork sortu zezakeen horrelako mina gero musikaz adierazteko? Batez ere, garai hartan. Leringo Blasek folk musikari eskeinitako zazpigarren bilduma amaitzear zeukanean (kontuan eduki, bataz beste, bilduma bakoitzak ehun kanta gordetzen dituela). Nola zitekeen poeta, bardo, kantari eta kantautore folk-malenkonia-tsuen artean ekaitz hori sortzea?

Gerora besterik izan da. Orain, Alemania, Ingalaterra, Iparrameriketa eta Australiako lurralde eta irrati-bideo urrutitaraino iritsi da musika

moeta horren oihartzuna. Hala izanik, gaurko gaztediak ez dakiela beste musikarik apreziazten, ez Von Karajan batek gidatutako Beethovenen 9.a, are gutxiago Japonia eta Euskal Herria bezalako lurralde enigmatikoek sortutako melodia gustagarriak.

Hemen datza Historiaren paradoja. Ikastetxe eta ikerleku guztitan musika «lasaia» dei dezakeguna egin eta konposatzen zen bitartean, leku berean, gau hartan entzuten ari nintzen hori sortua zen. Edonoren ile puntak tente ipintzeko modukoa!

Bazirudien kantariak, Xabik, musika-tresna guztiekin egiten zuela borroka. Hasieran, kitarra ezezagun harekin (soinuagatik «Fender» zahar bat izan zitekeela iruditu zitzaidan), gero baxuari tokatzen zitzaion txanda, eta ondoren bateriarekin erritmo hausturan jolasten zen... Abestien gorenean denek batera ekiteko, garraixi garratzean instrumentu eta ahotsa esposatu eta ezkonduz.

Gauerdia pasatuxea zen kaseteak amaitu eta barnean irrika bizia piztua nuenerako. Jakin nahi... nahi baino gehiago, behar nuen nor ote zen kantaria, non zegoen... Eta esan dudanez gauerdia inguru zen, ordurik egokiena Oreretako kaleetan bere arrastorik bilatu eta aurkitu nahi banuen. Horrela ba, kaleratu nintzen kitarra eta ahotsaren oihartzunak oraindik nire barne-garuna gaztigatzen.

Kale nagusia ezkerretara utziz, kale eta pasabide estuagotan zehar abiatu nintzen. Ke-poto usain mingotsa zen nagusi oraindik, baina piskanaka-piskanaka ardo eta alkoholarekin nahasten. Morroi bat geldierazi nuen:

-Hi, ezagutzen al duk Jabier Agirre delako mutiko bat?

Begirada arraroa bota zidan eta errezeloz erantzun:

-Zeee?

-Hi, lasai, ez nauk estupa bat...

-Jabier? Ze ostia, hik «metales» bilatzen dek!

-moztu zidan konfidantzazko higiduraz urdailean sekulako ukabilkada emanez.

Nere onera bueltatzeko denborarik ere eman gabe koadrila bat seinalatu zidan:

-Ikusten al dittuk hoik? Zea, grupokoak dittuk, kitarra bakarrik falta zaiek zaltzeko... Bera exfumatu dek.

Zaplasteko maitagarri bat emanez azken hitza ahotik zintzilik utzi nuen morroi hura.

Hurbiltzen nindoan heinean hobeto begiratu nien «grupokoei». Burutik oinetaraino beltzez jantziak zihoazen... beno ez, buruan guztiek, lau ziren (hiru mutil eta neska bakarra), zinta zuria, indioen tankerako zinta bana zeramaten. Kitararren tratua ixteko prest zeuden. «Fender» zahar eta beltz bat zen. Beraiengana iristearekin:

-Doblea ematen dizuet.

Nire ustez «doblea» esateak salbatu ninduen. Zer egin jakin gabe geratu ziren, eman nien sus-toagatik jo ta bertan astindu ala dirua jaso lehen-dabizi... Beraien kaskezurrean sartuz, aukera

garbia zeukatela ohartu nintzen eta denborarik eman gabe jarraiki nintzaien:

-Lasai, lasai, musika-ikerlari bat naiz, ez zaitzete izutu...

Neska besteen aurrean jarri eta jarrera probokagarriz hazkazal beltz batez seinalatu ninduen:

-Ze na-e-zu, phorastero?

Goitik behera errepasatzen ninduten plastiko beltzaren atzetik bere begiek:

-Beno, ba Xabi Agirr... beno «Metales»en bila nabil eta...

-Ze-ta-ko?

-Ba, hitzegin nahi nuke... hum!... berarekin, kontratu bat -gezurretan hasi nintzen. Farrez agurtu zituzten nire hitzak. Elkarri eutsiz egon ziren ez zitezen lurrera eror. Uste dut hasieratik izan nintzaiela gogoko. Bost minuturen buruan, lasaitzean, kitarra zeraman morroi argal altu hark hitzegin zidan:

-Begira, phoras, ikusteal dek hau -seinalatu zidan buruko zinta zuria, eta ikusten nuela kon-turatu zenez jarraiki zen-. Ba, lutoa dek. Xabi

«Metal» hil egin dek. Gu taldekoak gaituk. Eta bere lagunek lutoa eramaten ditek, hau!

Besteek diskurtso luze hori profitatuz kanuto bat bildu eta pizteko pasa zidaten. Gutxinaka giroa lasaituz zihoan eta bapatean Xabi «Metal» Agirre zorigaiztokoari buruz hizketan ari ginen.

-5-

Batak bestearen sorbalda gainetik besoa bota eta nire aurretik abiatu ziren kalean barrena. Sirimiri zirikagarri bat hasi zen. Kale erdi hustuan zinta zuriek lerro oker distiranteaz mozten zuten arratsa. Halere, farolak piztuak zeuden eta altzairuzko asfaltoa sasi-ilargiz bete zen.

Hatz artean itzaltzen ari zitzaidan kanutoari begira geratu nintzen. Deseroso sentitu nuen nire burua lau irudi beltz horien atzetik. Ardi bakarreko artaldea osatzen nuen. Kanta baten oihartzuna iritsi zitzaidan belarrietara. Kanta ezaguna zen niretzat. Pausua azkarragotu nuen beraien ia parera iritsi arte eta kanutua pasatze-ko aitzakiz kantaren hitza garden entzun nuen:

«Zelako krisi
halako bizi
Beyrouthen ez da ia inor bizi
100 ginen
22
orain bakarrik gaude 2

Zelako krisi
halako bizi
ezin gaitezke superbizi!
100 ginen
22
orain bakarrik gaude 2
zu ta ni, zu ta ni, zu ta ni, nininininini!!
ZELAKO KRISI!!»

Aharrausi erraldoi bat bota izan balute bezala isildu ziren. Nintzen arrotzari bezala begiratu ninduten eta aurpegia estaltzen zioten ileak bananduz neskak hitzegin zuen:

-Aghata naiz; hau -altuena seinalatu zuen-
Jota da, beste hau Jesus -Jesussek O.K. keinu az-

karra egin zidan- eta hau Ge -Gek ez zuen aditzen, kazadora beltzeko poltsikotan zebilen.

-Ni Julio naiz... adizue, hori Xabiren kanta bat zen, ez da?

-Bai -esan zion Gek euriari-. Kazadora mahukaz aurpegi bustia xukatu zuen. Ez nizkion begiak ikusi betaurrekoen atzean.

Unetxo bat besterik ez zen izan, baina taldeko hutsunea betetzen ari nintzela sentiarazi zidan ene harrokeriak. Aghatak Ge heldu zuen eta gure aurretik abiatu ziren neoizko argiez seinalatutako pub batetarantz. Jesus eta Jota aldamenean neramatzan. Jota hasi zen:

-Bere aita txatxu horrek dik erru guztia. Xabiren zaharrak laostia hituen. Inoiz hiltzen ez diren rockero agure frustratu horietako bikote bat edo holako zerbait. Lehengo batean kontatu zidan «Metales»ek bere aitan rolloa. Noski! ezkondu egin huen alu ostia hori. Elvisen garaikoa huen... ezagutzen al dek Elvis... Elvis Presley edo holako zerbait. Ba, « Metales»en koban, egun guztia morroi horren musika topera. Ostiatu egiten zian aitak. Gehien izorratzen ziona Elvisen ahots lodikotea «Fever» edo holako zerbait kantatzen ai-

tzea huen; aita joka eta gaineratik morroi horren ahotsa, pentsa ezak! Etxeko horma guztiak Elvis Presleyen posterrez josiak edo holako zerbait. Eta ai! aitak beste grupo baten musika aitzen harapatzen bazian. Aldegin arte maiz agertzen huen begi ingurua ubelduakin. Horregatik hasi huan Xa... «Meta» gafa beltzakin. Alde egin zian, joe baietz!!

Ez banitu bizkarrak hain ongi gordeak eraman ez nintzateke sekula «pub» deitzen zioten antro ketsu hartan barneratuko. Bainan Jotak alde batetik eta Jesusek bestetik nire desioa betetzetik ez etsitzera lagundu ninduten. Gainera atzera jotzeko berandu nenbilen, Xabi «Metal» Agirre ezagutzen hasia nintzen.

-6-

Kedarraren artetik Aghatak keinua egin ez baligu ez nituzke hango jendaila artetik bereiziko. Mahai baten inguruan zeuden.

Ge, zegoeneko lasaiago antza, «lanean» ari zen. Begirada okerrez begiratzen ninduten

neska-mutil ile koloredunez inguraturik eseri ginen. Ni lauron aurrez aurre eta barran apoiaturik zeudenei bizkar emanez. Kanutoaren lehen pipadekin oroitzearen itxurak egin zituen Jesussek eta kontatzen hasi zen:

-I gandetan hasi gintuan kontatzen. «Metales» en zaharrak diskoteka juteituen eskeleto herdoila muitea. Juten ginuztean eskonbrota. Eta dinbi danba lata zaharrei eman! Animal igarotzen genian igandea, ezta baietz Ge? Ikusi behar huan Aghata agertu zan eguna, moñoña-moñoña, eta Xabik...

-Eonai ixilik babua!

-...kriston begirada, eta hori gaztea huela, honire gustatu hura ta...

-iVete a la mierda! vale?

-Bale tia bale, lasaitu hadi eta emaion kanutuai. Bai, zea, Xabik gogotik kantatzen zian... Hi, ez al diau ezer ean biar o ze? Enrollatu hadi Julitxo...

-Zer nahi duzute...?

-Zerbeza.

-Ta nik.

-Nik e bai...

-Nik ez...

-Hik ezetz Jota? Ze pasatzen zaik? Jota al hago?

-Ez, nik garagardoa nahi diat, modelno!

Kristona montatu zuten hantxe. Altxa nintzen eta barran bost garagardo eskatu nituen. Nik ez nuen garagardoa edateko gogo haundirik tontotu egiten bait du, baina whiskya ateraz gero zer-bait hautsi nezakeela somatzen nuen. Bost mila-koa ateratzea txorakeria bat izan zen. Alboko ile-berdearen begiak amuak izan balira eramana zuketen biletea. Garagardoak mahaira eramatean txutxumutxuka hasi ziren nire atzean, bost milakoa aipatu zuten eta «paloa eman» aditun ion ile berdekoari.

Musuko aparra kendu eta berriro ekin zion Jesususek:

-Etxera ahotsik gabe iristen huen «Metales» eta horratio harrapatzen zun aitak. «Nun ibili haiz, deabru?!» eta holako ostiyak. Holakuak hasieran eta geo benetakuak...

Bapatean isildu zen Jesus eta bizkarretik atzera neukanari tinko begira geratu zen. Sorbal-dan bultzada bat nabaritu nuen eta laurak zistu

bizian jeiki ziren aulkietatik. Ileberdekoa eta beste bi morroi nituen aurrean. Duro bat edo eskatu zidan horietako batek ironi apur bat dibujatuz ezpaineekin. Borroka gure mahaian hasi bazen ere, segituan hedatu zen lokale guztian barrena. Txorabiatzen hasia nengoen, norbaitek garagardoa bota zidan gainera; ke atzean irteera bilatzen ari nintzenean argi-foko bat piztu zen eszenatoki antzeko plataforma baterantz.

Piztiak musikaren eraginez lasaitzen omen dira. Ziur nago antro horretan lehoi bat askatu izan balute erotuko zatekeela. Hango astakiloek borrokari utzi zioten eta aurreko istiluarekin alderatuz bare geratu zen guztia. Kantariak mikrofonoa jaten zuen.

-7-

Eroetxe batetik aterata zirudien talde hari erre-pertorioa bukatu zitzaionean, agertu bezala des-agertu ziren, garagardo botilazko euri atzean. Argi-fokoa itzali zen eta gau hartako nire lau lagunak mahaira bueltatu ziren izerdi patsetan. In-

darra zeukaten gazte haiek. Erdi tontotuta nengoen, garagardorik ez neukan jadanik eta ezin nuen gaitzetsi Aghata zientifikoak ez ziren begiekin begiratzea. Irristakorra zen dantzan; arrez inguraturik, mugimendu neurtuekin prantatzen zizkien mugak sudurretan. Ge animatuago zebilen. Aghatarenetatik begiak apartatzera behartu ninduen hizketan hasi zitzaigunean, bapatean:

-«Metales» terriblea buen, etzian beldurrik izaten. Larunbata izango huen edo, akordatzen nauk. Donostira abitu ginen helburua oso argi euki gabe. Euria egiten zian eta markesina baten azpian babestuta ia ordubete egin genian. Bapatean konturatzen nauk «Metas» eztagola gukin. Beiratu, eta hara non ikusten dudan, euritan eta fijo-fijo eskaparate bati beira. Musika katxarroen denda huen, «Edermon» edo holako zeoze. Xabik sartzeko esan, sartzan gaituk eta bapatean kitarra beltz bat harrapatzen dik Xabik... hor dagon huraxe. Atodaletxe erten ginen handik. Pasma hurbil zebilen eta bakoitzak gure aldetik jo genian. Ni Xabikin, eta Xabi kitarrarekin... Bofiak urrutitik ikusi gintuen eta zetozen birtartean, «Metales»ek kitarra hartu eta hor egon

huen harramaskatzen. Berak aituko zian zerbait. Nik alde egin nian eta bera eraman ziaten...

Berriro ere Ge lurjota zegoen. Kanuto bat pasa zion Aghatak. Denbora gehiegiz geratu nintzaion begira; Aghatak doinu monotonoz galdegin zidan:

-Hik dirua daukak, ala? Beirazak, rollua hola dek. Ge gaizki zioke eta ni-re bai. Denak gatxau-dek nahiko makal. Zeoze behar diau... -doinu sarkor horretan lotsagabekeria antzematen nion eta asuntoa uztekotan nengoen diskurtsoa puntu horretara iritsi zenez gero, baina bukatze-ko Aghatak behatz luzeak masailera hurbildu zizkidan eta goitik behera erortzen uzten zituen bitartean bukatu zuen- e, Julio?

Baiezkoa berea zuen. Hor nonbait galdurik zebilen burusoil bati dei egin zion eskuaz. Tipo nardargarri bat, mukiak atera eta jan. Jotak eskua zabaldu zidan eta bost milakoaren bueltak luzatu nizkion.

-¿Cuántos queréis, tíos?

-Bi izartxo -hasi zen Aghata, baina eten eta begira geratu zitzaidan, esana zuzendu zuen-, ez, emazkiguk hiru...

Bileteak eman zizkioten eta berak potroetatik kutxatxo bat atera eta «izartxoak» pasa zizkion Aghatari. Ge, pultso dardartiz, gilleteaz baliatu zen izartxoak ebakitzeko. Jesus garagardo batzurekin bueltatu zen eta bakoitzari tokatzen zitzaigun erdia irentsi genuen. Sobran zegoen erdia pasa zidan Aghatak:

-Hartzak, ikusten badek emaiok Xabiri -esan zidan mikazki.

-8-

Kanpoko neoiak oraindik pizturik zeuden. «Last Exit» gorriz eta berdez aldizka. Oraingoan Ge, Jesus eta Jota joan ziren aurretik eta Aghata nirekin. Atertu zuen.

-Hemendik orduerdira topera ibiliko haiz.

Aurrekoen kanta iristen zitzaigun. Isilik jarraitu genuen kale bustian gora eta Aghataren besoa heltzera arriskatu nintzen. Espero ez bezala erreakzionatu zuen eta ez zidan keinua arbuiatu. Berera egokitu nituen nire urratsak eta

durrunda modura iritsi zitzaidan Aghataren hizjarioa:

-Etzigun deskantsurik eman azkenaldian. Jo ta ke grabatzen. Oso arraro zebilen. Kanta pilo bat asmatu zituen. Hilabetean maketa bat bukatzen genuen. Kriston martxa huen. Gero entsaioen ondoren zepela ederra. Eta Xabi gero eta ahulago zegoen. Haserretu egiten huen ia ze gertatzen zitzaion galdegin ezkeru. Nekin e bai, nekin e bai...

Zerbait esatea tokatzen zitzaidala zirudien baina kokotean puntu bat nabari nuen eta farretxoro bat egiteko gogoia ere banuen. Aghata berri oso serio zebilen.

-Etxera joan eta kassetak aitzen zizkian, baina guk grabatutakoak besteik ez. Eta hurrengo egunian: «Halako kanta de puta pena dago, bengala!». Desmaiatu huen, zea, aktuazio erdian. Eskola nazionalian egin genian kriston aktuazioa eta bera desmaiatu egin huen bukaeran... Etxera lagundu nioan eta keba, ezkatzian agurtu nindun: «Txao, polita!» A ze ostia emango nion. Ez nian gehio ikusi...

Batetik bestera ibili ginen. Hankak arinak eta burua arinago. Zer erre eta zer edan nuen, ondo ez dakit. Dantza egin nuen, dantza. Aghatarekin, eta beste guztiakin ere bai. Ez nuen neure burua ezagutzen. «Pub» batetik bestera gelditu gabe eta denbora guztian Xabi «Metal» Agirrek betetzen zuen nire garuna, ezin nitzakeen ahantz etxean aditu nituen kantikak eta berriro aditzeko gogo izugarria neukan. Eta Aghata nire alboan dantzan, baxua jotzen zuenarena egiten, kanten erritmoan.

Aurkitu ginen ia leku berean banandu ginen. Banindoala ahots batek deitu ninduen:

-Hi, Julio -Aghata zen, korrika batean hurbildu zitzaidan. Kitarra zekarkidan, nik «erositako» kitarra.

-Ez zait dirurik geratu...

-Ez dik inporta, motel -eta nire ezpainetara igo zen musu bat ematera.

Begira geratu ziren beste hirurak, Ge, Jesus eta Jota, agurtzeko bueltatu nintzen eta azken aldiz begiratu nion Aghatari. Kale garbitzaileei begira eta lanera abiatzen ziren gizon eta ema-

kumeak ikusiz, musiko frustratu sentitu nuen
neure burua. Kitarra hura!

-9-

Goizak tindatzen zuen egongelako kristalera
berriro besaulkian eseri nintzenerako. Kitarra be-
giratu eta Xabiren kasete bat ipini nuen koadra-
fonikoan:

«Etxeko armairuan
eskeleto bat daukat
Gauetz etxeratzean
mozkortzen gara elkar

Larrutan egiten dugu
drogetan eta abar
bidaia triste baten
abiatzen gara

Camel pakete bat
litro erdi whisky
gaueko martxarako
hori ez zait aski

Eroki dantzatzen
pasa dut ederki
bainan zu etzinen
inondik ageri».

Xabi eta Aghata, eta Jesus, eta Jota eta Ge. Jota ke. Esku-magnetofonia hartu nuen eta kasete birjin bat bertan sartu. Xabiren musika hondo bezala, hitzegin nion magnetofoniari:

«Hemen kontatu nahi dut Xabi “Metal”, Xabi “Metal” Agirreren istorio labur bezain tristea... Begira ezazue, hor, oheko mutil hori Xabi Agirre duzue; lagunaren artean “el metales” ezizenez ezaguna.

Gelako ilunpea baztertzeko bezala mugitu du eskua Xabi “Metal”ek ohean; apenas tindatzen du patiotik sartzen den argiak gristasunez leihoa. Zabarki kendu ditu izerak. Alboan whisky botila. Azken tantek eztarria erre diote. Ohean eserita magnetofoniaren “play” botoiari sakatzen dio. Bere ahotsak, hormak daradara ipintzen dituen boluminaz, gela gainezkatzen du. Kitarra

elektrikoarekin aurrenik, gero baxuarekin, eta bukatzeko bateriarekin ere borrokatzen da aho-tsa.

“Dantzan turutu
erreumatiko guztiak dantzan turutu
hezetasuna ipernuan turutu
zatozte guztiok dantzan!»

Mesanotxean zeozer bilatzen ari da baldar, gainean zeuden zigarroak lurrera, edontzi bat ere txikitzen da, eskua ebakitzen du, “Kabenputa!”. Azken pikoa gastatu du; kalera atera beste erremediorik ez dauka.

Gela batek ezik, etxe guztiak barne patiora ematen du; gela horretatik begiratzuz hamabi pisuren altuera dago kaleraino. Gela hartako leihoa gau eta egun irekita egon ohi da, eta batzutan, udara aldean, Xabik eguzkia hartzen du kornisa zabalean etzanik. Etxean freskotasuna nabari da.

Kalera irtetzeko ate bakarra dago eta haruntz doa Xabi ez daki noren gelatik diru bilete mordo bat hartuz. Kazadora pasiloko lurretik jaso, astin-

du hautsa kentzeko; kateek eta inperdibleek txapen kontra metal soina egiten dute. Ez du magnetofonia geratu eta bere ahotsa entzun daiteke.

“...nire bizitzako datu guztiak
prozesatuak ertzainen zentroan
konputagailu batengatik
ikasteari utzi nion
erantzule automatiko batek
esperantza hautsi zidan
kutzazain automatiko batek
ez zidan dirurik eman...”

Beraiek egiten dutena, beste musikariek ez du entzuten. Mozkorturik dagoenean erreumatikoa-rena eginez kale hezeetatik dantzara gonbidatzen du mundu guztia. Kale zikinetan zehar zabuka... Kazadora hartu duen lekuan betaurreko beltz eta giltz sorta bat geratu dira. Ziuraski kazadorako boltsiko zulatu batetik eroriko zitzaizkion. Baina bera ez da konturatu, oraintxe arte. Atea danbatekoz ixten ari zen une berean eskuak kazadorako poltsikoetan sartu ditu eta konturatu da: atea ixten ikusi du: giltzak eta betau-

rreko beltzak ere: lipar batez: akabo!. “Kakazarra” garraisi egin du. Betaurreko beltzik gabe ezin kaleratu. Ateari ostikada. Motel, baina oraindik bere ahotsa adi dezake barnean, magnetofonik kantari...

“...ertzainengandik ihes egiten
nago ipernuko atean
mundu guztiko erreumatikoak
sutan ari dira dantzan
erantzule automatiko batek
esan dit eztagola Satan
tokata-makinak eztu funtzionatzen
duro bakar baten faltan...”

Isilik geratu da, ahapeka marmarkatuz, urduritasunak zainak jaten dizkio. Gogoratzen du etxeko leihoa, beti irekita egon ohi dena, hortik saiatu behar, horretarako auzokoekin hitzegin beharra izango badu ere. Auzokoen leihotik ez da batere zaila, ez eta arriskutsua, kornisa zabaletik berera igarotzea.

Atetik urrutiratzen den heinean bere ahotsa moteltzen doa atiaz bestalde. Eta bapatean

tinko gelditu da, auzokoenetik beste musika bat dator: Elvis Presley! Aukerarik txikiena ikusiko balu atzera joko luke. Ate aurrean arnasa sakonki hartzen ari da, behin eta bitan. Buruarekin ezetzaren keinua egin arren txilina jo du. Atea ireki denean Elvisen zapladak aurpegia gurutzatu dio. Atso bat dauka aurrean, ezpain moreztatuak, aurpegi ximurrak makilaia gehiegiaren azpian itoak, sasi-betile luzeak, gona motxen azpitik atsoari leotardo hori batzutan ezkutatuak bihezur mehar ageri zaizkio.

-Zer nahi dezu, mutiko?

-Giltzik gabe nao eta etxera pasa naet zuen leihotik.

-Joxantonio! Zatoz! Aldamenekoa da. Giltzik gabe dagola eta leihotik pasa nahi dula.

Joxantonio sukaldeko atean agertu da. Galtza bakerotan dago agurea eta kamisa loredun bat darama. Zuriak behar luketen ile bakanak bez-tuak daude.

-Bainan mutiko! hori oso peligrasua da -hasi da ahots engolatzuz Joxantonio- tira, tira, sartu barrura... Zuk ikusiko dezu bainan abisatu dizut. Atsoaren perfumea koipetsua da. Atzetik doakio

Xabi ezer ez entzuteko indarrak eginez. Sukaldeko leihora igo da emaro; salbazioa hurbil daukanaren espresioa marraztu zaio bere aurpegi gazte zigortuan... eta bapatean, aurpegia aldatu zaio, behera begiratu du, zangoen aldera. Izter erdi parean hazkazal arrosezko esku zahar bat pausatu zaio, atsoak irrifar gaiztoa eskeini dio eta espero ez zitekeen indarraz baina era berean maitagarriri bultzatu du Xabi hamabi pisuren hutsunera.

Bere garraisia kanta haunditsu baten bukaera bezalakoa da, lurraren kontra hezur ahulak eztrandatzen zaizkion arte.

Sukalde erdian atsoa eta agurea besarkatuak daude. Elvisek baldosa txurien kontra errebotatzen du bere ahotsa. Joxantoniok errotuladore batekin beste zenbait marraren alboan beste bat egin du. Irrifar zabala ageri da bien aurpegian sukaldeko leihoa ixten dutenean».

Irrati lokutore baten heriotza

1983ko irailaren bostean bukatua.

Maiz, irratia piztean, gorrotatu izan ditudan lokutoreei, maitasunez.

«Nork egin du noizpait amets
asesino bat bihurtu dela
eta bere ohizko bizimodua
itxuraz besterik ez duela egiten?»

Peter Handke

(sintoni musika)

-Kaixo entzule agurgarriok...

(rafaga)

-Hemen nauzue berriro ere...

(musika rafaga)

-...baina tristuraz beterik aitortu behar dizuet
azken aldiz nauzuela zuekin...

(musika rafaga luzetxoa)

-Bai, entzule maiteok, hainbat urte ordu be-
rean elkarrekin egon ondoren, gau eder asko el-
karrekin pasa ondoren, hau da irrati honetan
egingo dudan azken saioa.

(piano efektoa)

-Gaueko ordu desgirotu hauei epeltasuna
ematen saiatu natzaizue finki. Albistek eta mu-
sika tartekatzen dihardugun orduerdi hau oso
garrantzitsua izan da niretzat... Baina, utz ditza-
gun tristurak eta ezer gertatuko ez balitz bezala
arituko gara... Beraz, gaur ere albistek eta mu-
sika aukeratua. «Nazioarteko Albisteria»rekin
hasiko gara... baina, aurretik, musika!

*(Sergio Godinho.ren Campolide diskotik
«parto sem dor»)*

Une horretan, batek baino gehiagok sentitu
zuen hiria espetxea balitz bezala. Leihora hurbil-
du, kaleari, lurrunak kristala estali arte, begira-
tzeko. Norbaitzuen bizitza bezain hutsa dago.
Badaezpadako ordu guztiak errezkan pasatzen
hasi ziren, eta gizonak ez zuen ezer sentitu.
Beste gau bat. Irrati aparailura gerturatu eta
itzali egin zuen.

(puntu honetan musika moztu)

Ebak apenas altxatu zituen begiak irakurtzen ari zen liburuko lerrotatik. Ondoren, gizona berokia jazen ari zenean, Ebak, ahots nagiz hitzegin zion:

-Ateratzean piztu berriro irratia... Marlboro paketea berokiaren barne-poltsiko batetan sartu zuen, pistolarekin batera. Eta zigarro paketea bera baino piska bat handiagoa zen irrati-aparailu bat berokiaren ezker aldeko poltsiko zaballean. Ateratzean irratia piztu zituen.

(hemen berriro adituko da kanta, azken konpasak)

-Hemen gaude agindu bezala «Nazioarteko Albisteria» eskeintzeko prest; eta bai, hasteko, une honetan bertan teletipoak zerbitzatu digun berri bat daukagu eskuartean (zuzenean ari nartzazue itzultzen): Beyrouthen atentatu bat jasan du, e... bai, O.L.P. erakundearen egoitza nagusiak... Beno, pena bat da berri triste honekin ematea hasiera eskeiniko dizuedan azken albiste emanaldiari, baina tira... Badirudi bost hildako eta zazpi zauritu gertatu direla aipatutako atentatu koldar honetan. Teletipoko berriak ez digu

argitu hildako edota zaurituen artean erakunde-ko buruzagirik ba ote dagoen...

(Bob Dylan.en At Budokan diskotik «Blowin'In the Wind», 3. aldeko lehen kanta)

Kale tipikoegia deskribatzeko, hala ere, artxi-pielago ordenatuaren antzera lerratzen ziren farolen betiko islada bustiak. Gizonak kokotean nabaritu zituen bi itzalak. Ezkerreko eskua bero-kiaren ezker aldeko poltsiko zabalean sartu zuen irriaren «off» botoiari sakatzeko.

(puntu honetan musika moztu)

(urratsak sartu)

Klak horrekin batera eskubia bular aldera altxatu zuen bapatean paralizatuz, erdibidean. Urrats-hotsak kotxeen karrozeriaren kontra joz gero kajaorros bateko atari ilunean galtzen ziren. Takoi sendodun oinetakoak. Urrats ziurak atzean, gero eta hurbilago nabari direnak. Bi ertzain izan zitezkeen. Batak ezkerrealdetik aurrea hartzen dion bitartean, besteak, eskubikaldeko ukondoa, hain zuzen piska bat altxatua duena, ikutzen dio ezarian.

(honaino)

Ez zuten berarekin erreparatu, pentsamenduak erreparatzen ziharduten besterik gabe, putzu eta adokinen gurutzaketei kasorik egin gabe. Horiek eskubiko kalean barrena abiatuko dira. Gizonak ezkerretarantz jotzeko prestatzen du gorputza higidura perzibiezinaz irratia piztuz.

(kantaren azken konpasak adituko dira lokutoreak hitzegin aurretik)

-Ez dago berri garrantzitsurik Jamaikan bahitutako abioiaren inguruan; bahitzaileen eskakizunak ezagun dira eta bere horretan jarraitzen dute, hau da, droga biguina mundu osoan legez-tatua izan dadila...

O.N.U.ko ordezkariak bildu egin dira, ez daki-gu gai hau eztabaidatzeko ote den; bitartean berrogeitazortzi ordutako epeari hamabi bat ordu besterik ez zaizkio geratzen eta aideportuko bozgoragailuetan, bahitzaileen eskakizunaki amore emanaz, reage musika besterik ez da aditzen... Datu bitxia azken hau, gertaera dramatiko honen aurrean irrifarra loratu erazten diguna... Musika piska bat entzun ondoren «Estatuko Al-bisteria»ri begiradatxoa botako diogu... Aurrera bada musika horrekin...

(*Heaven 17.ren Penthouse and Pavement diskotik lehen kanta, «(We Don't Need This) Fascist Groove Thang»*)

(*musika tarte guztian zehar*)

Erabakikorki euritsua egoten da kalea gau euritsutan. Eta gutxi ausartzen da etxalde epeletik taberna hurbilenera dagoen tarte blaitua gainditzen. Gizonari musika atsegin zaio.

(*pausu hotsak urruntzen*)

Inguruko kaleren batetik norbait korrika aldentzen da. Berokiaren boltsikoetan harizko botatxoak egiten ditu hatzekin. Ebak esana dio: «ez didazu ezer kontatzen».

(*aszensore soinu matea*)

Atea zabalik aurkitu du eta aszensorean sartu ondoren, geldi-geldi dago ispiluari begira, hatzez ariketa erritmiko urduriak eginez.

(*musika argiago*)

Iritsi da gora, jadanik ez du irratiaren beharrik musika aditzeko, harrera-gelako bafletik bere irrati txikitik baino hobe entzuten da.

Ebak beti aditzen du irratia. Gero eta aurrerago pasilloan barrena. Berokiaren lau botoiak askatu. Berokiaren barne poltsikoan pistola fereka-

tu. Zabaldutako ate aurrean geratzen da pistola erdialturan apuntatuz. Pistola txikia da. Aurrean daukana ehiza erraza...

(lokutorea hizketan hasi aurretik kantaren azken konpasak).

-Beno bada, iritsi gara gau beltzean barrena «Nazioko Albisteri»ra; eta, gaur ere, berri triste bat, berri odoltsu bat gure herrian... Arratsaldeko zortzirak eta hamalau minutu zirenean / *(Tiro HOTSA!!!)*.

(Emakume ahots gozo bat:)

-Entzule agurgarriok, hau «Berri Irratiak» eskeini dizuen irratsaio bat izan da. Honekin, eta besterik gabe, agurtzen dugu gaurkoa, mila bederatzirehun eta larogeitahiruko irailaren bosteko saioa. Gurekin egon zaretelako eskerrak eman ez, gau on eta epel bat opa dizuegu guztioi.

(sintoni musika)

-B aldea-

Amodiozko istorio bat

1983ko azaroaren bederatzian bukatua.

SUSA saileko 4.ean argitaratua dago ipuin hau, "Urte guztiak dira diferente. Narratiba 1984" izenekoan.

Kalean aurki daitekeen horietako katu bati.

«Nik esango banu berrogeitamar urteko emakume alargun bat naizela, eta nire pekinesa kalera ateratzeko aitzaki gisa baino gehiagotarako erabiltzen dudala, gutxik sinetsiko lidake.

»"Nola?! Ez da posible", esan lezake irakurlearen batek.

»Hasteko, berrogeitamar urteko emakume bat imajinatu beharko luke. Gero pekines bat. Imajinazio frogaz zailegia ez da. Tira, arratsaldeko zazpirak aldean kalera ateratzea besterik ez dago. Orain, udazken estraino honen erdialdean, arratseko nolabaiteko itzaletan parkeren batera joan eta han erraza da horietakorik aurkitzea, eta baita obserbatzea ere.

»Zailagoa da emakume hori, bere pekinesarekin, lehen frasean aditzera eman nahi izan den lizunkeriatan imajinatzea. Zailagoa izango zaio baina, irakurleari, imajin “zail” hori erraz eraiki duela aitortzea.

»Dena dela, puntu honetara iritsiz pentsa dezake: “Baitazeraere!. Zertarako kontatu behar du berrogeitamar urteko emakume batek bere pekinesarekin egiten duen lizunkeriarik”.

»Eta hori aitormen-konfesio bat izan daitekeela sinesteko oztoporik nagusiena, pekinesak txonkatilak miazten dizkion bitartean, emakume hori kontakizun honen lehen frasea idazten imajinatzea ezinezko zaiola da.

»Batez ere, euskaraz idatzia dagoelako.

»Eta, askok egingo luke apostu ez dagoela hori konfesio gisa idatz dezakeen berrogeitamar urteko emakume euskaldun pekinesdunik.

»“Beraz, hau itzulpen bat da”, pentsa zezakeen aterabide bezala lehen frasea irakurtzeaz bukatu ondoren irakurleak.

»Hala ere, narrazioaren lerro hauetara iritsiz gero, badaki ez dela itzulpen bat. “Literatura

da". "Bueno, asmakizun bat". "Tira, amets idatzi bat"; edota, zergatik ez, ezta?, "txorakeria bat".

»Mundu guztiak komentatzen bait ditu berrogeitamar urteko emakumeak bere pekinesarekin egin ditzakeen lizunkeriak; mermelada, gurina eta abar dira irudipen aitorrezin horien beste konponenteak...

»Eta ze erru dauka, diot nik, berrogeitamar urteko emakume horrek pekinesak gustatzen bazaizkio? E?»

Nik banuen katu bat. Amodioak abandonatu ninduen denboraldi batean katu horretaz maitemindu nintzen.

Desberdindu behar da maitemina eta amodioaren artean. Maitemina ia nahita onartzen dugun egoera da, bilatuko bagenu bezala. Amodioa, hain zuzen, bilatu gabe sortzen da; gutxien epero denean eta gutxien espero denarekin. Amodioa eta maiteminaren arteko konbinaketa gertatzen denean, edozer gerta daiteke... Ni, besterik gabe, neure katuarekin maitemindurik nengoen.

Gertaeren martxan eraginik izateko aukera ezak bultzatu ninduen poemak idaztera. Hiri haundi batean auzokide izan arren inoiz bisitatzeko ez den lagunarekin bezala gertatzen zitzaidan. Euslekurik gabeko amildegi batean erortzea. Irteerarik gabeko laberintoan barrena.

Nik katua fereka nezakeen, baina, berak ere, inongo arazorik gabe egin zezakeen alde nire arrebaren besotara. Bera, katua, ez zen enteratzen.

Kateme arrunt bat zen, ene ustez. Katabel-tzek daukaten maliziarik gabe agerian. Katazuririk daukaten samurtasunik gabe. Arraia ilun eta argiak osatzen zituen ileak bere soinean, eta buztanean ere bai. Lehen poema idatzi nionean, ez nintzen gehiegi ohartu zertan ari nintzen. Bere hatzamarrak oroitzen nituen nire bihotzean sarturik, zauritzen, eta zauriari zerion odola milikatzen zuen bitartean, nire begiak busti, eta hainbat atsegin zitzaion eran ferekatzen nion burutxo. Poema horiek argitaratzerik ez dut sekulan pentsatu. Poema horiek inoiz ulertuko ez zituen batentzat bait ziren (agian, poema guztiak bezala).

Eta gainera, garrantzitsuagoa dena, desengainu berri bat jasan nuen. Dena dela: nik kate-me zela uste nuenari, ipurtzulo azpialdean bi hanpadura susmagarri hazi zitzaizkion; bi larruzko poltsatxoak argikiro eratu zirenean poema horiek erretzekotan egon nintzen.

Trabestiaren txistean protagonista bezala sentitu nuen neure burua: defraudaturik. Beraz, ez zena maitatzen ari nintzen. Katua berbera zela nioen tematsuki alde batetik; baina, bestalde, argi zegoen zerbait aldatu zela katuaren itxura fisikoan, makillaia kendu balu bezala. Nik ez nuen katu hura maite!

Benetan nire maitasunaz jabetu izan balitz bezala, nire grazia kendu nionean, katua erotu egin zen. Bere erreakzioa, baita arrebaren aurrean ere, ez zen lehenagokoa. Arras ezberdina zela esatera ausartzen naiz. Fuuus! egiten zion hark eskua gainean jarri bezain pronto.

Nire magalera igotzera saiatzen zen etxeko salan irakurtzen nengoela adibidez. Baina argi zeukan horrek ere. Hasierako etsipen sentsazioa kanbiatu nuen ohartzeko; katua gorrotatzen nuen. Eta, halere, egia esan, apur bat bihotza

hunkitzen zidan bere negar lastimeroak albotik kenduz urrutira kondentzen nuenean. Berak, jandak, bazekien ez nuela maite. Ziuraski horregatik zen nabarmenagoa niganako preferentzia.

Baina, ez zen errudun. Nik hori argiro nekien, noski baietz. Orain harriduraz milikatzen zituen bi poltsatxoak ziren aldaketaren ageriko salataileak; erruaz hitzegitea sobera zen kasu horretan (eta beste hainbatetan ere, amodio arloan batik bat).

Agian, batera etorri zen aldaketa fisikoa eta niganako «maitasuna». Eta urte oso batez erantzunik gabeko maitasuna negartu ondoren, sufri-menduaren iturri hori musuak, eskeiniz baino gehiago, eskatuz etorri zenean, enamoratuak sentitutako arbuiatze berbera jabetu zen nigan. «Orain al hator? Ba orain, ez!». Hori zen azalean ikus zitekeena, amak aurpegiratzen zidana. Mui-nean besterik zegoen. Ez nekien zer egin katua-rekin. Biok bakarrik pasako genituzkeen orduak desiratu nituen garai batean. Orain nekatzen ninduten, batez ere bere egiazko itxura azaldu zuenetik. Aitzaki gisa honela nioen nirekiko: «Hik

katemea maitatzen huen, ez negarti datorren katu ar hau.»

Jadanik ez zen ausartzen egunargitzean nire ohera salto egitera. Negarti itxaroten zuen amak eskeintzen zion esnea. Eta, ahal zuenean, hatzarmarkada gaiztoz eskertzen zion. Horrek ama nire aurka jartzera zeraman. Udara hartako esnatzaldiak benetan gorrotagarriak izan ziren. Katuak eta biok gutxitan geneukan kontakturik. Amak egiten zuen bitartekotza behartua. Nire erantzun txarrak katuak ordaintzen zituen, eta katuaren eskertxarra nire lepora zetorren. Azkenaldian nigandik urrun zebilen, umore txarreko mementuren batean emandako ostikada pare bat zela medio.

Katua erotu zen, guztiz, uda amaieran. Piska bat lehenago edonon pixa egiteko ohitura hartu zuen; hondarrezko kutxak nazka emango balio bezala aristokratikoki baztertzen zuen, eta pasilloan, edota gurasoen ohean ere, botatzen zuen bere usain txarreko gernua. «Ez da pixa normala» zioen amak behin eta berriz bazkalorduan aita etortzen zenean. Aitari bai ziola errespetoa katutxoak. Aitak hala nahi zuenean, deitu eta

magalean hartzen zuen. Berdintsu, umore txarrez zetorreanean katuak bazekien hobe zela ez hurbiltzea.

Arrebaren lagun baten lehengusuaren osaba albaitaria (edo beterinarioa) zela eta, katuari begiradaxoa bota, eta katua eme beharrean zegoela ondoriotu zuten. Lehendabizi aldaketa fisikoa izan zen. Gero etxeko harremanen aldaketa. Azkenean emea ekarri zuten auzoko janari denda-tik. Egun oso batez egon ziren gela batean elkarrekin. Handik atera zenean erabat eroturik zegoen gure katua.

Behin baino gehiagotan egon nintzen, bere negarrak aditzean, atea zabaldu eta libratzekotan; baina ez zabaltzea izan zitekeen nire mendekua. Nahiz eta aitortzerakoan erreparorik izan. Atea zabaldu izan banio bizi guztirako eskertuko lidake, dudarik ez (katuak eskertzarrekoak izan arren). Kateme hark jan egin zuela uste dut, irentsi. Nik ez dakit. Dakidana, nola atera zen handik gurea. Begiradan nabari zitzaion. Katu gaxo bat.

Katu ero bat niri begira pasilloaren bestaldean. Eta ni gelan sartu nintzen bere begirada

distirantea gaitzetsiz. Baina banekien han zegoela. Pasilloaren beste puntan, geldirik, arnasa baretzen, pentsamendurik gabeko gorrotoan, edo amodioaren bestaldeko eromenean.

Ama oso pozik zegoen, arrebak ez zekien zer pentsatu, aitak horretaz zerbait pentsatu behar zuenik ere ez zuen uste. Nik banekien zer egin zioten katuari.

Egun hartatik aurrera gutxi ikusi nuen katua. Bidaia bat egin nuen. Abiatu aurretik Katu bizpahiru aldiz ikusi nuen etxetik paseatzen. Pasilloan elkar topatzen bagenuen, bakoitza hormara itsatsita pasatzen zen, zeharka begiratzuz. Aitari ere ez zion kasurik egiten. Ez zuen apenas jaten. Ez behintzat amak prestatzen zion plateretik, zoko batera eramaten zuen jatekoa. Arrebari beldur ematen zion katuak, hurbiltzen zen bakoitzean, hatzamarrak erakusten zizkion eta. Nik aldegin nuen denboran katua benetazko etxeko errege bilakatu zen, hau da, nahi zuena egiten zuen: pakean uzten zuten denek.

Bueltatu nintzenerako, asmatu bezala, ez zegoen etxean. Baina ez ihes egin zuelako. Eraman egin zuten. Familikoen lagun batzuren etxera

eramana zuten, hauen etxeak patio zabal batera ematen zuelako edo; eta bertan katu talde zenbait ikus zitekeenez, hura zela lekurik aproposena pentsatzea erabaki zuten etxekoek nire ausentzian. Gainera, nolabait, katuaganako ardura guztia kendua zidaten. Ez banion kasurik egin nahi ez nezakeen bere etorkizunaz ezertxo ere esan.

Larunbat batean ekarri zuten berriro. Apal eta goxo, gorputza zauri izugarritz josirik. Patioko katuen buruzagiarekin borrokan ibili zen. Familiakoen lagun horiek esan zidatenez gurea patioko katurik txikiena eta ahulena zen, eta, halere, suizidaki borrokatu omen zen beste katuarekin, tigre txiki, baina ez hain txiki, zirudien batekin.

Gogorki gaztigatu zuen, baina katutxoak behin eta berriro eraso egiten omen zion, bakoitzean okerrago ateratzen zelarik. Azkenean, errenka, odola zeriola, etxekoengana bueltatzea lortu zuela.

Ekarri zutenean bakarrik nengoen etxean. Bakarrik nengoen gelan, ohean etzanda ezertan ez pentsatzeko ahaleginetan, eta horrelakoetan gertatu ohi zaidanez, gauza orotik errekorrituz

pentsamendua. Enziklopedia batzuren tartetik aldizkari porno bat atera eta ganoragabeki orrialdeak pasatzeari ekin nion, hori bait da pentsamendu gaiztoak itotzeko biderik bakarra. Orduan entzun nuen ateko tinbrea.

Katua zekarten. Bai, ostia, pena sentitu nuen gure katua modu horretan gaztigatua ikustean. Gertatutakoa kontatzen zidaten bitartean etxean barneratu zen poliki-poliki gure katua. Atea itxi bezain pronto bere bila hasi nintzen. Espero ez nezakeen lekuan aurkitu nuen: nire gelan. Leihoaren argikontran bere zauriak miazten, hainbat alditan marraztu nuen postura berdinean. Bere aurrean eseri nintzen aldizkari pornoa baztertuz, eta erreprotxe egingo balit bezala begiratu zidala zin egin dezaket. Modu horretan egon ginen, niri luzea iruditu zitzaidan denboraz. Zerbait eskatzen zidala erabaki nuen arte.

Etxean ez zen ezer entzuten, eguzkia gero eta apalago sartzen zen leihotik katuaren itzalari haunditasun itxura berezia emanaz. Begira zerraidan.

Eta orduan izan zen galtzetatik giltza atereaz sekreterra ireki nuenean. Nire, bereganako, mai-

teminaren poemak han zeuden, tolesturik, ahan-
tzirik erabat.

Katua ez zen gehiegi mugitzen. Noiztik behin kaskezur erdian zeukan harramaxka itsusia miazten saiatu arren ez zezakeen lor. Bere esfortzuak kondenaturik dagoen baten indargabezia eta solemnitatea zeukan.

Aurrean eseri nintzaion fijo begira. Argi elektrikoaren beharrik gabe irakur nezakeen oraindik. Eta banan-bana bota nizkion poema guztiak. Irakurri nituen dezakedan ahots goxoenez, sekula ikasi gabeko poemei behar zuten doinu eta sentimendua itsatsiz. Kristalean euli baten hegaltxoek zenbait eguzki printz filtratzen zuten.

Esanahi berriz bete ziren poemak. Noizean behin, katutxoari begirada botatzen nionean, burua okertuz adi neukala ikusten nuen. Zauriei jaramon egin gabe. Gutxinaka lurrean etzan zen arte.

Azken poemaren bukaera irakurri nuenean begiak hertsirik zituen.

Isiltasun osoz jeiki eta poemak berriro gorde nituen.

Etzetik aldegitan katua lo zegoen, bai, lo zegoen. Lo zegoen betirako. Betirako.

Oroimena (galdu) zuen elefantésaren ipuina

1984ko ekainean bukatua.

Ipuin hau ez zitzaien gustatu « Lizardi» sariko III. edizioan «desierto» eman zuten Anjel Lertxundi, Federico Krutwig, Lontxo Oiarzabal etabarrei.

Maripi Solbes-i, eta oroimena galtzeko zorian dauzkatenei.

Loak ezin hartu nengoen igande gau batean hots txiki batzu aditu nituen oheburuan. Ez ziren, ohi bezala, auzokoen telebista ozenegitik ateratako telefilm zaratak; apalagoak ziren, zoru azpitik aterako balira bezala. Izerak alderatu nituen eta hotsen iturburua aurkitu nahian eskubiko belarria zurezko oholetan itsatsi nuen:

«Jope! Osaba Gus, konta iezaguzu ipuin bat!!» entzun nuen.

Harritu egin nintzen, noski, ahots mehe horiek entzutean; baina eskaera horiek erantzun bat jasotzen zutela aditzean, ahal bezain eroso

jarri nintzen «Osaba Gus» izena zuen hark jadanik hasia zuen kontakizuna jarraitzeko, txintik ere ez galtzeko.

«Beno ba -hitzegin zuen Osaba Gus izan behar zuenak-, kontatuko dizuet, baina baldintza txiki bat behar duzue...

-Zein baldintza, Osaba Gus? -galdegin zuten ahobatez Osaba Gusen ilobak zirenek.

-Loak hartzeko moduan etzan behar zarete-la, eta nik ipuina bukatzerako seko lo egongo zarete-la -hau esaterakoan Osaba Gusek ahotsa gogortu egin zuen; eta nik «bale!» pentsatzen nuen bitartean zorutik ere hitz berdina errepikatu zuen hainbat ahotsek.

-Oroimena galdu zuen elefantaren ipuina kontatuko dizuet -bota zuen Osaba Gusek beharrezko zen deklamazio haunditsuz.

-Oroimena? Zer da hori Osaba Gus? -entzuzen bazter batetik, sortutako giroa apurtuz.

-Xittu! -erantzun zuen errieta doinuz Gusek-Joan den astean ederki asko argitu nizun zer den hori, dagoeneko ez al zara oroitzen.

-A! bai. Oroitzen naiz Osaba Gus. Barkatu. Badakit zer den oroimena... Baina batzutan ahaztu egiten zait -negartu zuen Xittuk.

-Hori, oroimen txarrekoa zarelako da. Ba, horrelako zerbait gertatu zitzaion ipuineko elefantetxoari...

Orain dela urte batzu, gazteago nintzenean, Afrika izeneko lurralde batetan nenbilen bakan-tzak igarotzen. Benetan egun zoragarriak lurralde hartan igaro nituenak, batez ere, niri gehien atsegin zaidana egiteko aukera paregabea neukalako. Hain zuzen, goizean goiz jeiki orduko gehien maite nuena oihanera joan, elefanteren bat aurkitu eta sekulako sustoa ematea zen...

-Ji, ji, ji, -egin zuten Osaba Gusen ilobatxoek. Zeregin horretan oso trebea nintzen, zinez, eta elefanteek jadanik inguruetatik sagu trufalari bat zebileneko zurrumurrua zabaldua zuten beraien artean. Horregatik gero eta zailagoa egiten ari zitzaidan elefanteren bat oharkabean harrapatzea, beti elkarrekin eta albotara mesfindantzaz begira ibiltzen ziren eta.

Goiz batez, ohizko ibilbideetatik kanpo nabilela, ezagutzen ez dudan agerrune batetara iritsi naiz. Pentsa dezakezue zer nolakoa izan zen nire poza han erdian zozolo-mozolo elefantetxo bat ikusi nuenean. Burua alde batera eta bestera astinduz, elefantetxo polit bat zen, areago, elefantesa txiki polit bat, kikia bait zuen, oso moñoña, zinta arrosa apaingarriarekin loturik.

Esan dizuedanez elefante izutzea gero eta zailago zitzaidan, horregatik, kontu haundiz, bestetan ez bezala, une egokiena itxaroteko asmoz sasi-arte batzutara noa elefantetxoaren mugimenduak zaintzeko.

Handik beha nagoela, konturatu naiz aurrean dudan elefante hori piska bat arraroa dela, bere mugimenduak ez direla ohizkoak bezain baldarrak, ohi baino baldarragoak baizik, traketsagoak, elefantetxo txikiak non dagoen jakingo ez balu bezala, guztia berri bailitzaion, pinpilipauxa edota eltxo txikienari begira geratzen bait zen.

«Ui, ui, ui», pentsatu nuen, «elefantetxo hau bere bizitza guztian oroituko da nitat. A ze sustoa emango diodana!». Bai, horixe zen pentsa eta uste nuena... Baina, bapatean, zuhaitz erral-

doiek utzitako pasabide txotxolo batetik eguzki printz bi sartu dira, jolasti, han, agerrunearen erdian dagoen zingiradi batetan nor bainatu lehenago lehian. Eta horrela, murgildu direnean, ez «txof!» ez eta «plaf!» ik ez da nahastu oihaneko beste hotsekin. Noski, zingiraren azalean jotzean dirdir egin bait dute elefantetxoaren begi-niniak zirikatuz. Sekula santan zingiradirik ikusi ez balu bezala hurbildu zen elefantetxoa erdi-saltoka, eta ertzera iritsitakoan sor eta lor geratu zen, burua okertuz, alde batera eta bestera.

Berriro ere «ui, ui, ui» pentsatu behar izan nuen, «posible al da elefantetxo honek inoiz bere burua isladatua ez ikustea». Eta hala zela zirudien, bere irudiaz maitemindurik bezala geratu bait zen uretara begira. Aspertzen hasia nengoen ordurako elefantetxoak sudur-luzea aurreratu zuen irudia ikutzeko asmoz eta, noski, aurrean zeukan elefantesa polita gero eta haundiago egin ziren eraztunen uhintxoetan desageratu zen. «Aiba! joan da elefantesa» edo horrelako zerbait esateko keinua egin zuen gure elefante-txoak eta bere begiak negar egiteko zorian ikusi nituen.

Ez neukan beste erremediorik, handik atera eta izutzea erabaki nuen. Banoa... poliki-poliki, iritsi naiz bere albora eta: «ñiiiiik!!». Ezer ez. Batez. Ez zela izutu. Jadanik prestatua neukan plana pikutara joan zitzaidan, elefanteak nola korri egiten duen ikusi eta bertan barrealgaraka geratzea izaten bait da abentura horien bukaera zoriontsua. Orain, elefantetxoa aurrean neukala, irribarrea izoztu egin zitzaidala estalaktita ñimiñoak nabaritzera, konturatu nintzen elefantea txolin hori ez zela saguekin izutzen, ez zuela handik presaka alde egiteko asmorik, urrik eman ere!

«Brifñ!» eginez kendu ditut izotzak bibotetik eta galdetu diot haserre fin batekin:

-Aizan! zergatik ez dun aldegin lasterka eta presaka?

-Aizan! zergatik ez dun aldegin lasterka eta presaka? -errepikatu zidan erantzun gisa eta bere ahotsa entzuteaz harritu egiten zen itxurak eginez. Ilargi betea baino borobilago zeuden begiez begiratzen ninduen. Ez zen izutzen, eta ez zirudien denbora puska batean izutzeko asmorik zeukanik, eta orduantxe ohartu nintzen elefante

bat, aurrean neukana bezain txikia izanagatik ere, sagu bat baino ehun alditan haundiagoa dela (zehatzago kalkulaturaz ehun eta zazpitan haundiagoa). Eta, orduan, izutu egin nintzen; handik elefante izutu baten antzera aldegiteko prest nengoen elefantesa mozolo horrek, lehen zingiradira begiratu bezala begiratu ninduenean, eta:

-Mor maiz mi?

Gazta zati bat nire hortzetan bezala aienatu zitzaizkidan izua eta handik antxitxika aldegiteko gogoia, biak batera. Lehen izoztutako irribarrera berriro loratu zitzaidan; egia esan, elefantesa gaixo horrek pena piska bat ematen zidan eta barrea ahal bezala ezkutaturaz erantzun nion:

-Herorrek jakingo dun!

Hain tuntuna ez zen izango zerbait gaizki egin zuela konturatu zenerako, eta okerra zuzendu nahiez berriro galdegin zidan:

-Mor haiz mi? -berriro ere oker. Eta gero eta gehiago saiatu, okerrago: «mi mor haiz?», «mor maiz hi?», etabar. Hasieretako «n» esatearen ordez «m» esateko moduak eta bere galderetan ez asmatzeak eraginda tripak eztarrian nituen

ahotik ateratzeko zorian, barrez hiltzeko zorian...

Baina elfantesa hori haserretu zen eta:

-Mekatxis eta zotz! MOR MAIZ MI?

Irtenbide bat bilatu eta aurkitu behar nuen, bestela elfantesa poxpolin eta ele-txarreko hura gehiago haserretuko balitz arriskutan nengokeen, elefanteak haserretzen direnean oinkoteak non ipintzen dituzten ez bait dira konturatzeko, eta horrela hil izan da makina bat sagutxo. Nik ikusia!... Beraz, jakindurizko aurpegia eta mugimenduak itxuratuz, elfantesaren aurrean prantatzen naiz eta...:

-Ouuu, ea bada, itxaron, esango dinat nik... Egon naiz denboralditxo bat igarotzeko asmoz Hegoameriketa izeneko lurralde batetan; eta han sudur politeko emakumeei «Narilinda» deitzen zieten... Hirea benetan polita dun, baina ez luzeegia, beraz, Narilinda ez, baina «Narilin» jarriko dinagu izentzat... zer iruditzen zain? -galdegin nion, piskat harroki, izen egokia iruditzen zitzaidalakoan... Baina elfantesak izen berria errepikatu zuenean:

-Marilyn...?

-Ezetz ba, Narilin!

-Bueno, hori, Marilyn...

-Nahi dunan bezala, hirea izango dun eta izena! Nire asmakizuna era baldres horretan alferrikaldua entzutea oso pozgarria ez bazen ere, tira!, arriskua behintzat urrundu genuen eta Marilyn, oihanean nabari zen bidezidor batetik abiatuz, bere izen berria ahapeka marmarkatuz («Marilyn», «Marilyn»...), zoriontsu zebilen; bere kikiak, alde batera eta bestera egindako mugimenduez, ibilkera-erritmoa markatzen zuen. Eta ustekabean buburatu zitzaidan:

-Ai zein pinpirin den gure Marilyn! Pinpirin! Hori da! Zein azkarra naizen: MARILIN PINPIRIN, hori izango da elefantesa panpoxa honen izena.

Baina ez neukan begira egoteko denbora gehiegirik, elefante batek beste elefante batzuringana eramango ninduela erabakiz, Marilyn atzetik abiatu nintzen.

Jakin behar duzue nahiko azkar nindoala, elefante batek baino ehun eta zazpi urrats gehiago eman behar bait du sagu batek. Alde batera, plom!, eta bestaldera, plom! zabukatuz zihoan Marilyn; eta ni, zistu bizian, kixkixkixkixkixkixkixkixkix!, albotik. Azkarregi zihoan hala ere niretzat,

eta gelditzeko aitzaki gisa eta gure arteko adiskidantza sendotzeko asmoz esan nion:

-Aizan! Marilyn, ez didan izena galdetu.

-Mor maiz mi? -erantzun zidan temati.

-Ez, ez eta ez. Gaizki dago hori. Hi Marilyn haiz, eta ni, nor naiz ni? -saiatu nintzen pazientzia haundienaz.

-Ba hori, mor maiz mi? -«n» behar zenean «m» esateko akatsa alde batera utziz, ernegatzeko modukoa zen elefantesten burugogorkeria.

-Ez, esan behar dun: nor haiz hi? -pinguino bati berde kolorea adierazteko baino saio neketuagoan sarturik nengoela pentsatzen ari nintzenean...

-Mi, Marilyn maiz -erantzun zidan garaipen orrore batez bukatuz esandakoa.

Gramatika bidetik ezer lortuko ez nuela, etsituta, bere urtemugarako gramatika potzolo bat opari ederra izan zitekeela pentsatuz, segidan erantzun nion:

-Ni berriz, Gustabo naun, lagunek Gus deitzen banaute ere; beraz, hiretzat Gus izango naun.

-Gus, Gus, Gus -errepikatuz hasi zen Marilyn, izena ongi ikasteko nonbait, eta bapatean:-Gus... gustora jango nuke zerbait -eskapatu ziztaion.

-Ez haiz nik pentsatzen nuen bezain tuntuna Marilyn -esan eta pozez saltoka Marilinen sorbal-dara igo nintzen.

-Tuntuna... tuntuna... zurrurutuna! eta gero, arraultzak txistorrarekin; zer iruditzen zaik, Gus? -ez, benetan ez zela nik hasieran pentsatu bezain tuntuna, gose nintzen ni ere.

-Gustora jango nukeela Idiazabalgo gazta puska ederra, baina tira, hik gonbidatuz gero, goazen edonora eta jan dezagun edozer... Ea ba! Nora goaz? -galdegin nion ahotik xistu ttantta bat erori eta Marilinen bizkarraldean dir-dir hasi zenean.

Izerditan hasi zen Marilyn galdera entzutearekin batera, azala izerdi tantoz bete zitzaion eta irrist eginez lurrera erori nintzen. Marilyn ingurubilka zebilen eta nik ahal bezala egiten nien ihes bere oinkoteei:

-Aii, Gus!, badakit zer gertatzen zaidan, ez dut ezer gogoratzen, oroimena galdu dut!! Ai,

ama! buaa! Oraintxe konturatu maiz txinatar errestaurante bat ezagutzen dudala... baina ez maiz gogoratzen mundik joaten den hara, ai, Gus, aizak, mor maiz mi?

-Ez hadi tuntuna izan...

-Bai, bai, goseak akabatzen mago...

-Ez izateko tuntuna, ez al dinat ba Marilyn haizenik esan!? Eta gainera, abizen prolemarik ez dago, Marilyn Pinpirin haiz eta.

Izena, zertxobait bada ere, ez da gehiegi, gauza gutxi konpontzen du, batez ere, goseak eraso gero eta ausartagoak egiten dituenean urdailean, eta elefante baten urdailean sortutako hutsunea ez da nolana hikoia. Horrela ba, txinatar errestaurantea bilatzekotan, lehenik eta printzipalki Marilyn oroimena aurkitu behar, han bait zegoen ongi asko seinalaturik txinatar errestauranterako bidea eta helbidea.

Beraz, gehiago itxaron gabe Marilyn oroimenaren bila abiatu ginen biok.

Eguzkiak indartsu erasotzen zuen gero eta urriago agertzen ziren zuhaitzen tartetik, eta Marilyn bizkarra erabat lehortu zenean, gora igo nintzen berriro.

-Hemen ederki egoten da, Marilyn!

Baina Marilinek ez zidan kasurik egiten, ez zidan aditzen. Ez bere belarriak txikiak zirelako, jakina bait da nolako belarriak dauzkan elefante batek, eta baita elefantesa txikienak ere. Marilinek niri kasurik ez egitearen arrazoia ez zen, bestalde, oroimenarekin batera elefantesa poxpolin horrek izabidea galdua zuelako. Hau zen gertatzen zitzaiona Marilini: oroimena non arraio galdu ote zuen pentsatzen saiatzen ari zela. Baina ez zen akordatzeko, ez non galdu zuen bere oroimen preziatua, ezta nola pentsatzen zen ere. Beraz, nola pentsatu pentsatzen zihoan, pentsatzen ikastean oroimena non galdu ote zuen pentsatzeko aukera izango zuelakoan, eta orduan ez ginelako ibiliko kasualitateak agintzen zion xendrea guztietatik noraezean.

Marilinek kasu gehiegi egiten ez zidanez, eta eguzkia orain benetan fuerte zebilenez, eguzkitarako betaurreko beltzak jantzi nituen, azala bezteko parada egoki hura aprobetxatzearen.

-Deituko dit zerbait behar duenean -pentsatu nuen nirekiko-, oroimena galtzeak gauza benetan izugarria izan behar du.

Ordulaurden bat inguru ibili ginen, Marilyn noraezean eta ni bere gainean. Ordulaurden batean elefante txiki batek zenbat kilometro egin dezakeen ez du ajolik. Baina handik ordulaurdena gertatu zitzaigunak bai.

Marilin etsita zebilen ordurako, elefanteek pazientzia haundia dutela ahantzia bait zuen oroimena galdu zuenetik, eta bapatean seko gelditu zen, ni, eguzkitarako betaurreko eta guzti berriro ere lurrerako bidean ipiniz.

-Zer gabilta, Marilin! boltsikotik parakaidas hau garaiz atera dudalako izan ez balitz hezurak hautsiko nizkinan!!.

Bere horretan jarraituz, Marilinek ez zidan jaramonik egin. Aurrean zeukan puntu beltz bati tinko begira zegoen. Marilinek, noski, ez zekien zer zen, baina zuek ederki asko asmatuko zenukete. Horrelako zomorro beltz nimiño korrikalari bat zen: txingurri bat!

-Ai, ai, ai, eta baita ui, ui, ui ere. Oi, oi, oi erantsiko nuke halakoa bait da buruan sentitzen dudan mina. Ai, ai, ai!!! -kexuka eta marruka, itzulipurdika zebilen txingurria, Marilinen oinko-

teen pean bizia galtzeko zorian egon zelaz jabe-tzeke.

Marilinek berak nahiko lan bazuen zomorro hori zer ote zen asmatzen eta neronek galdegin nion:

-Txingurri! zer gertatzen zaizu?

-Burukomina, ai, burukomina dudala.

-Burukomina? -galdegin nuen ziurtatu nahiz.

-Bai, eta nolakoa gainera, ai!, ui!, eta oi!.

la mundu guztia korritua nuen, txingurri asko ere ikusia nuen nire bidaietan, baina sekula, inoiz, ez nuen burukomina zeukan txingurririk topatu. Eta une horretan Marilinen ezjakintasuna eta nire harridura parekatu ziren.

Marilinek burukomina zer zen ez zekielako eta ni txingurri batek burukomina izan zezakeelaz harriturik, batera hitzegin genuen:

-Burukomina? -galdegin nuen bigarren aldiz.

-Burukomina? -galdegin zuen Marilinek.

-Bai, bai -erantzun zigun bioi txingurriak.

Marilinek hitzari esanahia bilatu nahiean zeukan orain lan ederra, eta berriro ere ni bakarrik geratu nintzen misterio hori argitzeko:

-Eta nolatan izan dezake txingurri batek bu-
rukomina, e, txingurri?

-Esango dizut nik, ederki esplikatuko dizut
lan asko egin dudalako izan dela pentsatzen hasi
baino lehen. Egia da hori, hala ere; lan eta lan
ibili naiz egun osoz, lan eta lan, eta derrepentean,
hainbeste lan eta lan, jan eta jan bihurtu
dira; hau da, gose nintzela, txingurriek, gutxi
bada ere, zeozer jaten dugulako noiztik behin.
Eta orduan ba al dakizu zer egin dudan?

-Ez! -erantzun nion istorioaren bukaera inon-
dik ere ezin asmatuz.

-Ba, beti egiten dudana, janari bila abiatu
naiz. Asko ibiliagatik ere ez dut ezer gustokorik
aurkitu denbora luzean, eta derrepentean, kutxa
polit bat aurkitu dut. Hain zen polita kutxa hori,
kasik gose nintzela ere ahaztu egin zaidala...

-Gosea, Gus, gosea, Gus, gosea, gustora
jango nuke zerbait -moztu zuen Marilinek txin-
gurriaren kontakizuna. Baina txanda honetan
neroni izan nintzen Marilini jaramonik egin ez
ziona, kutxa polit horren istorioak gosearena
ahantziarazi bait zidan.

Txingurria kutxa polit hura deskribatzen jarraitu zen; hain zen polita kutxa hura, eta hain ederki mintzatzen zen txingurria Marilyn berari ere ahaztu zitzaiola sentitzen zuen gose izugarria. Txingurriak deskribapena bukatzerako Marilyn eta biok kutxa polit horren bila partitzeko prest geunden. Kontakizunaren zati batean txingurriak kutxa zegoeneko lekua seinalatu zigun eta harantz abiatu ginen zistu bizian. Hala ere, txingurria segika hasi zitzaigun:

-Baina, baina, ai eta ui, ez dizuet istorio guztia kontatu, ui eta ai, ez dizuet esan garrantzitsuena, oi, oi, oi, inportanteena dena!!!!

Orain biok batera ginen txingurriari jaramon egiten ez genionak. Eta txingurriak, istorioaren amaiera bidean kontatuko zigula erabaki zuen. Horrela nire bizkarrera igo zen, sagutxo batek ematen duen urrats bakoitzeko txingurri batek ehun eta zazpi eman behar dituelako. Eta ni, txingurria bizkarrean neramalarik, Marilinen bizkarrera igo nintzen, esan dizuedanez, elefante baten urrats bakoitzeko sagutxo batek beste ehun eta zazpi eman behar dituelako. Era horretan, ni Marilinen bizkarrean, eta txingurria nire

bizkarrean, bideratu ginen kutxa liluragarria egon behur zuen lekurantz.

Beti atsegin izan dut nire bizkar bainea doazen izena ezagutzea, eta horregatik istorioaren bukaera eskatu baino lehen, bere izena galdetzea erabaki nuen:

-Aizu, txingurri, nola da zure izena?

-Txingurriek ez dugu izenik -erantzun zidan txingurriak, baina ni ez naiz hain erraz konformitzen diren horietako sagua, eta behin txingurri bat hain hurbiletik ezagutzeko aukera izanik, ez zuen izenik gabe erraz ihes egingo:

-Nola ezetz? Ba zuri bat ipiniko dizugu... Ea ba, hemendik aurreraaa... zure izenaaa... Mingurri! izango da, e? zer iruditzen?

-Bo! niri bost axola -erantzun zidan txingurriak.

-Ba niri asko gustatzen zait, oso izen egokia da, bai, Mingurri, oso egoera mingarrian ezagututako txingurria zarelako! -Marilini ea zer iruditzen zitzaion galdetzekotan egon nintzen, baina beretzat buruhauste haundiegia izango zelakoan nire asmakizun berria ulertzea, bakarrik gozatu-ko nuela erabaki nuen.

-Bo, nahi duzuna, baina orain nahi al duzue istorioa bukatzea? Bai? Ba entzun... Kutxa hain polita zenez gero, barrura sartu naiz barrukoa are politagoa izango zelakoan...

-Eta...?

-Ba... ez dakidala, hauxe da dakidan gauza bakarra, kutxan sartu bezain pronto burukomin izugarria sentitu dudala, eta gogoratzearekin bakarrik orain ere sentitzen dudala, aiaiai, oioioi, uiuiui!.

Marilin ez zen gehiegi larritu, aditu ere ez zuelako egin. Eta niri dagokidanez, txingurri bati min eman ziezaiokeen gauza batek sagu bati ez ziezaiokeela ezer egin uste nuen. Gainera, iritsiak ginen kutxa polit hori zegoen lekura.

Benetan ederra zela eguzkipean dirdirka ageri zen kutxa! Bai horixe! pentsatu nuen. Marilin lasterka eta presaka abiatu zen haruntz. Txingurria jeitsi egin zen gu bion gaintetik, baina atzekaldetik, eta iristear geundela, nik, Marilinen sudurretik behera irristatuz, kutxa barrura salto egin nuen, lehena iritsiz:

-Ai!, ai!, ail, nola da posible?!, ze mina!, ze burukomina!

-Abisatu dizut -esan zidan txingurriak, haue-
tako bati min egin diezaion gauza batek sagu bat
ere mindu dezakeela konturatzen nintzen bitar-
tean.

Marilinek nire kexuak eta txingurriaren abi-
suak aditu gabe sudurra sartu zuen kutxa lilura-
garriaren barrura eta:

-Aaaaaa! -suspiriatu zuen Marilinek-, ze ma-
rabila!, ze marabilosua, ze liluragarria, pozga-
rria, ederra, txundigarria, estonagarria... -ez
zuen ezerk mozten Marilinen hizjarioa, une bate-
tik bestera hitz piloa gogoratu zitzaion egoera
hori deskribatzeko, ze, noski...:

-Aurkitu dut, hemen zegoen nire oroimena!

Marilinen poza ez zen inon kabitzen, ez noski
kutxa batean. Guztiaz oroitzen hasi zen Marilyn,
nola galdu zuen bere oroimena, nor zen, zer zen,
zer ziren inguruan zituen gauzak, sagutxo bat
zer zen ere... Baina ez, ez zen izutu, ez bait zen
debalde pasa aurreko guztia, eta jadanik galdua
bait zigun sagutxooi beldurra; beraz, gauza
batzu kendu behar izan zituen bere oroimenetik,
eta horretan zebilen gauza garrantzitsuenaz
konturatu zenean:

-Gosea! Arraioa, gose mauk Gus! Gosez akabatzen matxiok! -Marilyn hurbileko gauzetaz oroitzen hasi zen, txinatar errestaurante baten bila abiatu ginela gogoratu zitzaion. Baina ez zuen oroimenean gehiegi bilatu behar izan txinatar jatetxea aurkitzeko. Aurrean geneukan, su-durraren puntaren puntan, txinatar jatetxea.

Kutxa liluragarria txinatar jatetxearen aurrean zegoen, han egon zen azken aldian bertan ahantzi bait zuen oroimena Marilinek, eta handik atera zen zerbitzari aratz batek adierazi zigun leku gehiegi kentzen zielako sartu zutela kutxa polit horretan.

Sartu ginen bada, Marilyn, Mingurri eta hirurok eta sekulako bazkaria enkargatu genuen. Handik nola atera ginen, zer egin genuen, jandakoa goxua al zegoen eta kontua zenbatekoa izan zen beste baterako utzi beharreko kontuak dira, ipuin hau ongi bukatzea ezinbestekoa bait da, bestela Marilyn haserretuko zaigu, eta bere oinkotea ez da txantxetakoa, benetan».

Gus zeritzon saguaren hitzak isildu zirenerako isiltasun paketsu bat nagusitu zen zoruaren azpian, eta Gusen ilobatxoak goxo goxo lo irudi-

katzen nituela neroni ere ahal bezala igo nintzen
ohera eta bertan seko gelditu nintzen sagu, ele-
fante txiki eta txingurriekin amets eginez.

Jeloskor nintzeneko hainbat pasarte

1984ko uztailean bukatua.

-I-

Maite ninduela errepikatzen nion neure buruari, behin eta berriz, bere gorputza haren zakilkaden pean astintzen zen erritmo berari jarraikiz: «Maite nau, maite nau, beste orenen garrantzia ezdeusa da».

* * *

Eta ez nengoen oker. Soinekoa atonduz nigatatu zenean, arnasestuka oraindik, begiak erditxiz, ahots eztienaz belarriratu zidan:

-O! asko maite zaitut.

* * *

Harrez gero ez naiz nehoiz jeloskor izan.
Neure buruaz beste egin nuen.

-II-

Beste behin konturatu nintzen beregan gehien maite nuena ez zela, ene alboan goxoki, musukatuz, begiratzen ninduen modua; baizik eta kaletik gazte beltzaran segailei so geratzen zitzaien era.

* * *

Zinegile izatearen arrazoia hor bilatu behar duzue. Klean filmaturiko erreportaiak logelan ezarritako oihalean begiratzen zituelarik izorratzen nuen.

* * *

Bere begietan, esfortzu ttipi bat eginez, filmean agertutako gazte beltzaran segailen ibiltzeko tankera soma nezakeen.

* * *

Ondorioz, «coitus interruptus»ak, beti, filma behar baino lehen amaitzean bakarrik gertatzen ziren.

-III-

Hasieran istilu ugari izaten genuen, bai, ezin uka. Ene izateko era patxaratsu eta lasaia, asal-datu -hobeki esanez-, bere on-etik ateratzen zen off-izio gaiztoko txarkina banintz lez, estraineko promenadetan sua eska zekiokkeen edozein gazterekin musuka hasten zenean.

* * *

Egun batez, parke baketsu batetako eserleku batetan jazarrita geundelarik, katuño bat hurbil-

du zitzaidan eta magalera igo. Aitortu behar di-
zuet ezin izan niola katu hura emeki-emeki fere-
katzeko desioari eutsi. Sua zeriola begitatik, eta
bitsa ahotik, zerri bat nintzela oihukatu zidan,
eta:

-Ez esan gero maite nauzunik!!
Eta alde egin zuen.

* * *

Katuaren hilotza eraman behar izan nion
etxera barka nintzan. Erruki diet hurbiltzen zaiz-
kidan katu guztiei (bera aurrean delarik).

-IV-

Hiriko zarata eta bizimodu baldarrari ihes egi-
nez, itsasbazterreko marinel herri batetan igaro
genuen denboralditxo. Larunbat arratsero, ja-
danik kaiean loturik zeuden ontzien ikusmira au-
rrean neukala, tristatzen nintzen...

* * *

Larunbat arratsalde batez, triste nengoen ohi bezala, egongelako besaulki malguan amildurik, kopetilun. Bera hurbildu zitzaidan, haragia estaliz kamisoia zeramala soilik, maitekor, ohi bezala:

-Zer duzu, maite? -galdegin zidan ohi bezala.

-Triste nago... -erantzun nion ohi nuen bezala.

-Ez duzu zertan triste egon beharrik -hasi zen, eta, boza leunduz, segeretuki, esan: -bada-kizu, ongi asko, maite zaitudala...

* * *

-Zu!!! -deiadarkatu zuen ahots zakar batek bortizki gu bion logelatik- ez al zatoz?!

-Bai -erantzun zuen berak, masailean mu emanetz haruntz abiatu zelarik.

* * *

Larunbatetako ohizko marinel amorantea zuen.

Bakarrik suertatu nintzen gau hartan. Lagun guztiek aurrez finkatutako akordio bati jarraikiz bezala alde egin zuten eta. Izotzak urtu zituen whiskya elkarrizketatzen ari nintzen, begiak jaso, eta emakume baten begiradan iltzekatu zirenean.

* * *

Emakumea itxura oneko gazte baten besoe-tan zegoen, luiuratsuki elkaturik, baina haren mihi-ezpainen aurreratze gero eta ausartagoei jaramon egin gabe, ni begiratzen ninduen.

* * *

Egoera horretan ordulaurdena eman ondorenean, emakumeak gaztea baztertu zuen, altxa zen, eta amultsuki lotu zitzaidan musu luze bate-tan.

* * *

Bera zen.

-VI-

Amets gaizto batek iratzarri ninduen. Beste emakume batekin larrutan ari nintzenean, bera agertu eta eskutan zeraman burni gori batekin biok trabeskatu gintuela amets egin nuen.

* * *

Irudi anker hori uxatzearren bera esnatu eta lasai mintzatzea zatekeela onena deliberatu nuen. Ezkerretara luzatu nuen eskua, eta hutsunea besterik ez nuen ediren.

* * *

Ametsa hain txarra ez zela susmatuz berriro loak hartu ninduen.

-VII-

Elkar ezagutu eta bi egunetara kafetetxe bare batetan geunden, solas lasaiean. Ezagutu nuen modua txalotzen nuen nik, jarrera guztiz aurre-rakoia erakutsiz. Bera ados zegoela zirudien, baina bere begirada galduak artegatzen ninduen.

* * *

Amodioa sentimenduen joan-etorri etengabea zela nioen, gehiago ezin jasanez, ea zer begiratzen zuen galdegin behar izan nionean.

-Han dagoen gizon hura -erantzun zidan soilki.

* * *

Ene esanen arabera jokatu nuen:

-Atsegin al zaizu?

-Bai, noski, ederra da benetan...

Ziur nengoen frogatzen ninduela eta ene adostasuna naharoki agertu nion.

* * *

Altxa zen eta gizon ederra eskutik oratuz desagertu ziren.

Zinez frogatzen ninduela!!

-VIII-

Lanak bi hilabetez hiritik kanpo eraman ninduen. Itzuleran, abioitik jeitsi bezain pronto ikusi nuen bera, jendartean agurka. Bere ezpain gorrien kontra estutu nituen neureak, eta taxisean, etxerantz, burua ene sorbaldan kokatu zuen.

* * *

Sorpresa bat espero nuen beragandik, horrelakoetan beti eskeini ohi zizkidalako. Dutxa hartzen nuen bitartean «Urzo xuria» kantatu nuen,

eta ateratzerakoan birentzako afaria prest zegoen mahaian. Kandela eta guzti.

* * *

Afaltzen hasi aurretik zerbait esan nahi zidala konturatuz beta eman nion:

-Zerbait nahi al duzu?

-Inporta al zaizu lagun bat etortzen bada? Ezetz esan nion hura zela sorpresa usmatuz.

-Orduan bere bila noa, izkinako tabernan daukat zain eta.

* * *

Bost minutu barru itzuli zen bere lagunarekin.

Gizabideki agurtu ninduten eta gelan sartu ziren.

* * *

Bakarrik afaldu nuen. Eta bi egun barru berea platerean zegoen oraindik, usteldurik.

-eta azkena-

Askotan galdegin nion denbora hartan neure buruari ea zergatik jarraitzen nuen berarekin.

* * *

Bost urteren buruan aurkitu nuen erantzuna.

* * *

Eta erantzunak konbentzitu egin ninduen.

* * *

«Maite dudalako».

Itzulerarik gabeko gunean

1984ko abuztuan bukatua.

Kaletik noanean hainbat tristatzen nauten zaharrei.

Gizon zahar hura lehen aldiz ikusi zenuenean. Hobe. Gizon zahar hura lehen aldiz seinalatu zizutenean, ez zen zure baitan higuin sentsazio bat besterik sortu, kupidarentzako kabidarik txikiena ere ez zegoen zure pentsamenduetan.

Zoriontsu zeunden ezohizko egun batetan izan zen. Bakantzetako lizentziak oheko epela ordu berantean uztea permititzen zizun, eta hartatik, zure muinek, lokarturik oraindik, nabardurak hatzemateteo gaitasun berezia zuten. Oroz gaindik barne lasaitasuna itsasten zizun giro orokorra ikusten zenuen. Hobe. Ikus zezaten uzten zenien zure begiei. Giro orokorra, malekoi bakar-ti bateko azken puntan eseri eta eguzkiaren printzei ihes egin nahiez bezala arroken kontra desegiten diren olatuak behatzean sentitutako patxarra haunditsua bailitzan.

Gosaldu egin zenuen egun hartan, noski, urruti zeuden eta -bakantzetako lehen astea izan arren- lanerakoan zeneraman presak gosal-tzearena zeregin goiztiarren zerrendako azken postura kondentzen zuten egunsenti belduga-riak. Ez bait zegoen oraindik ia gau diren goizak baino ezer krudelagorik zuretzat.

Kafesneak erakarritako zigarroa erretzen zindoazen kale bakarti batetik. Asfaltotik lurrun zorabiagarria altxatzen zen; ispiluzko pasabide bat hasten zela, piska bat haruntzago beti, zirudien. Patxara horren berezitasunak eguna bera kutsatzen zuen, oroimenean gordeleku sakona izan zezakeela usmatu araziz. Eguzkiak gogor jotzen zuen, bertikalki, itzalak kale albo bietan aparkaturik zeuden kotxe azpitan babestera behartuz. Distantziek aldatuak ziruditen, kaleak, zeukana baino luzera haundiagoa balu bezala.

Parkera iristeko dauden eskilarak saltoka igo zenituen. Giharren tenkatzean gaztetasuna sentitzen zenuelarik gozotasun epelak gainditu zituen. Parkea berria zen eta zuhaitzak, urteek ekarriko zieten sendotasunaren esperoan oraindik, apaindura ahul batzu besterik ez ziren, ez

zuten kerizpe freskoaren esperantzarik ematen; eta, orohar, parkea, urtesasoirik gabeko denbora baten erdian eraikia zegoela iruditu zitzaizun.

Denboraren neurketa urtesasoien berdintzean aienatuko balitz amaigabeki egon zintezkeen zurezko banku koloregabatu horretan eserita. Hori ere, zure aurka zegoen; eserita zeunden banku ajeatu horrexek berak iseka egingo balizu bezala adierazten zuen denbora ez dela urtesasoietan murrizten den parametroa, badue-la botere eta esparrurik hortik at.

Auzoko lagun baten etorrerak egunkaria alde batera uztera behartu zizun, eta une alaitsuetan sendotutako lagunartea zelarik zuena, elkarrizketa eguna bezain borboriotsu jalgi zen bion ahotatik. Bataren hitzak bestearenen jarraiean zihoazen, monologo tartekatu batzuren gisara; monologo horiek txertatu eta gezaltzen zituena, zalantzarik gabe, gaztetasuna zen.

Lagun huraxe izan zen parketik noraezean zebilen gizon zaharra seinalatu zizuna. Eta ondoren, hari buruz zekitzan datu guztiak, istorio bitxi moduan, kontatu zizkizun.

-Ez al duk ezagutzen?

-Ba, ez, egia esan ez nauk sekulan fijatu gaur arte; igual ikusi diat noizpait, baina ez nauk akordatzen -zuen aurretik igarotzen ari zen irudi tamalgarri haren aztarna oroimenean bilatzen saiatzen zinen, esfortzu handirik egin gabe bestalde.

Agureak poltsa txiki bat estutzen zuen eskuartean. Eskuak, eta hatzak ere, zainez inguratutako hezurak ziren, oraindik ere bizi zedin norbaitek itsatsi balizkio bezala zeramazkien zain horiek hiruzpalau berokiren mahuka azpian ezkutatzen ziren, bonbaketa aspertuan zirauen haragiaren bila. Ibiltzeko eragatik zama astun bat garraiatzen zuela pentsa zitekeen, ez zitzaizun bururatu esperantzaren zama izan zitekeela.

Urrutiratzen zihoan heinean zuen elkarrizketa ere irudi harengandik aldendu egin zen. Ziu-raski hauek izan ziren gaiari buruz esan zenituen azken hitzak:

-Dena dela, ni zahar hori izango banintz, neure buruaz beste egingo nukeen. Ez litzaidake batere gustatuko adin horretara iristea.

Zure garunean txertatua gera zedin hutsalegia izan zen lehen ikustatze hura eta gero, normaltasun launean murgildurik igaro zenuen egun beroa. Salbuespen txiki bat badago hor, zuk garrantzi haundiegia eman ez zeniona, baina orain aipa nahi zenukeena.

Hilabete ba zen aita ikusten ez zenuela. Bazkalostean etxera hotsegin zenuen, eta aita paseatzera atera zenez, etxea garbitzeko alokatua zuen emakumeari arratsean bisita egingo zenio-la aitari esan ziezaion enkargua uta zenion. Ahaztu egin zitzaizun bisita egitea.

Gauean lokamuts batek iratzarri zintuen. Ez zeunden izerditan, alderantziz baina, soinadarrak hotz zenituen. Armairutik manta atera eta berriro loak hartzen saiatu zinen. Amets gaiztoaren imajinek, alabaina, ez zizuten baketan uzten. Behin eta berriro errepikatzen ziren, zirkularki.

Zelai idor eta zabal batetan zeunden, argiz inguraturik, lurrean eserita, begiak hodeiertzari loturik, han ikus zenezakeen ttantta ilunean tinko. Txingurri baten tamainakoa izan arren,

izuak eztarria korapilatzen zizun, urrutian zegoen hura ezinbestean hurbiltzen bait zen. Astiro, zure izua areagotuz. Nolabait bazenekien izutzen zintuen ttantta beltzaren helmuga zeu zine-la, erlearentzat argia bezain erakargarria zinela zeu arrastaka eta bere tamaina egiazkoa hartuz zetorrenarentzat.

Imajina horrekin batera, zahartzaroak igarotako gaztaroan daukala esperantza guztia sentitzen zenuen; eta esperantza hura eskuratzeko, hurbilarazteko modua oroimena dela: tristura dariola isurtzen den oroimen gozo eta, erabe-rean, mingotsa. Gizakia pilota baten antzera irudikatzen zenuen. Eskutik sortzen denean ez du ikusten zein izan daitekeen bere ibilbidearen azkena, baina horma ikustean, bere esperantza bakarra, bertan jo eta errebotean atzeraka abiatzean datza. Itzulerako bidea gainbehera doa, oroimenaren ibilbide ezabakorrari jarraikiz...

Eta zuk joan-etorri horretan preso ikusten zenuen zeure burua. Ohean urduri, ametsean jadanik ez zeneukan argi non zeunden, zelaiean eserita edota bazetorren itzal hartan. Itzalaren izua zeure eginaz, beldur bikoitz horrek hozkatzen

zizkizun erraiak. Azkenerako, gaztaroko zeure imajinaren xerka zihoan agurea ala ametsek pro-
jektaturiko etorkizuneko agure baten erasoaldia
jasatekotan zegoen gazte herbaila zinen ez ze-
nezakeen bereiz.

Imajina horien antzaldatze eroa eten nahiez
eskuak jaso zenituenean, zeureak ez zitezkeen
zainetan bilduak zeudela ikusi zenuen. Ikuitzen
saiatzean ezabatu ziren; eta imajina horien jato-
rria bilatu nahiez abaildu zinen lo sakonean.

Erdi-insomniozko gau batek ez du garrantzi
haundiegirik. Eta zuk gaubela hori bakantzetako
lasaitasunari iratxeki zenion. Ezer ez egiteak sor-
tutako nagikeriari. Goizean, espabilatzeko dutxa
hotza hartu ondoren lagunari hotsegina zenion te-
lefonoz.

-Aizak! moteltzen hasia negok, ze iruditzen
zaik frontoiera bagoaz palaz jokatzera?

Lagunak gogo onez hartu zizun gonbitea,
izerdi piskat botatzea eta zuen arteko etsaigo
adiskidetsua berriztatzea on izango zitzaizuen,

berak ere, esan zizunez, kirola praktikatzeko beharra sentitzen bait zuen.

Frontoiean, txandala azkar bustitzen zitzaizula nabaritu zenuen, eta izerdiak zentzumena pizkortzeko ahalmena zeukan zugaran. Galtzarbeetan eta bularrean sortutako iturriak nabarmentzen hasi ziren, kamiseta txuria gardenduz. Kopeta ere izerdi ttantta txikiz perlatzen zitzaizun antxoan zeundela txokora bidalitako pilotaren atzetik egiten zenuen esfortzuaren kariaz.

Ikuslerik gabeko jokaldi guztitan bezala, norberak jokoan jarritako indarrak lagunarteko lehiak gidatzen zituen, eta tantoak ez ziren garaipena lortzera begira jokatzeko, esan zitekeen plazer estetiko batek gidatzen zituela bion palak, tanto polita burutzea bailitzan goiz hartako jokaldi izerditsuaren helburua.

Zerua hodeiez garbitu ondoren agertu zen eguzkiak zirudien epaile bakar. Urrutitik begirata, pelotaren ibilbidea asmatuz, gorputzaren oreka egokiro hautsiz, gune zehatza lortzeko emandako urratsak neurtuz, eta, azkenez, pilotari eragindako kolpe boteretsua palaren kokatze bereziarekin konbinatuz sortzen zen mugit

mendu orokorra koreografia batek aginduta bezala marrazten zen. Gaztetasunaren indarra go-raipatzeko espreski eraikia zegokeen eszenario batetan zeundeten.

Bapatean, begiartzak pilota bera baino haundiagoa ez zirudien gorputz baten presentzia salatu zizun eskubikaldetik. Kale egin zenuen. Pilotak palaren ibilbidetik kanpo ihes egin zuen, hutsegin ez zenezakeen bolea paregabea galduaraziz. Lagunak irribarre burlatsuz agurtu zuen zure erru sineskaitza.

-Ze?, bista galtzen hasi al gara edo?

-Ez dakit zer gertatu zaidan...

Ez zenuen besterik esan desenkusa modura. Eguzkiak txapan egindako islada batek itsutu zintuela esatekotan egon zinen, baina edozein aitzakia lekuz kanpo zegoela usmatuz, lagunaren sakea erantzuteko prestatu ziren.

Mugimendu artegaz kokatu zenuen, behin eta berriz, palaren euslekua esku ahur izerditsuan. Enpalmezko zintaren tolesdura desegoki baten ziztadak bezala egiten zizun enbarazo eskubikaldean ikusitako itzal hark. Eta begiratzer

ausartu gabe, haunditzen eta hurbiltzen zela asmatzen zenuen.

Eguzkiaren indarra haundiagoa zela iruditzen zitzaizun, arnasa ere zailki hartzen zenuen orain, eta txokora pega-pega eginda zetorren sakeari erantzun nahiez palak hormaren kontra jo zuen. Dardar elektrikoak besoa korritu zizun. Mina aurpegian, besoa astintzen zenuen minbera uxtzearren. Oraingoan lagunaren irribarrea algara ozen bilakatu zen.

-Atsedean egingo diagu nahi baduk, e?

-Tira, tira, bota ezak pilota!!

Jokoan jarri nahi zenuen adiera guztia. Jokatu nahi zenuen. Ordurarte bezala. Lagunaren sakeari egoki erantzun... Baina horretarako eskubikaldera begiratu behar zenuen, laguna sakerako prestatzen ikusteko, gero, hormatik sortua bezala etorriko zitzaizun esferan lasaitzeko segundu horien buruan pilatutako tenkadura. Eskubikaldera. Eta eskubikaldean, laguna baino haruntzago, beldurgarri zitzaizun itzal bat zegoen, zegoe-la uste zenuen, bazenekien. Esfortzuaren izerdia beste izerdi gaiztoago batekin nahasten zitzazun orain.

Tximista ikustea izan zen. Denbora labur berdina. Zast! Eta gero, tximistaren argitasunaren oihartzuna begi jadanik hertsietan bezala ikusi zenuen, behin eta berriz, imajina hura. Agurea. Gizon zahar hura han zegoen, esku zaintsuez poltsa txikitxo oratuz, estutuz, etsai gorrotagarrri baten lepoa bailitzan.

Han zegoen, bai, eta ez jokoa behatzen. Une labur horretan argi ikusi ahal izan zenuen. Bere begi nimiñoak, kiski pilota bezain beltzak, zugaran iltzekaturik zeuden. Azala trabeskatu eta zure barruan sartzeko ahaleginetan. Zure irudia begiez zerkatu nahiez.

Konturatzerako, ia gainean zeneukan pilota. Urrats bat atzera, eta irristatuz lurrera zindoazelarik, esperantzarik gabeko azken indarkada baten medioz pilota kolpatzea lortu zenuen, fortuna haudiz, ozta-ozta txapa gainean eman ondoren, zeraman efektoagatik motel erori baitzen, lagunarentzat ezinezko gertatuz erantzutea.

-Hik daukak potra, zerria!

Ez zenuen indarrik egin ezpainetaratu zitzazun irribarre arrotz hura ezkutatzeko. Agurea

beha zeneukan. Eta grada hutsetan bere itzal xumea multiplikatua zenekusan.

Sakea eskuratuz gero, kupida gabe ekin zenion pilota zailak bidaltzeari. Ahalik eta aldrebe-senak; eta bosten bat tantotan zehar zeu izan zinen kantxako nagusi. Noizean behin lagunak harriduraz begiratzen zintuen, baina zuen begiradak ez zinen elkartzen. Txapelketa garrantzitsu batetako finalean sartuta zenbiltzan. Ileak nahasi, begiak zabal, izerdi patsetan. Kasik ikuslegoaren deiadar eta oihuak adi zenitzakeen. Agurearentzat ari zinen jokatzeko, ero baten moduan, irtenbide bakarra garaipenean ikusiko bazenu bezala.

Ba zirudien jokaldi hura hil ala bizikoa zela zuretzat. Eta sakea galdu zenuenean, eta lagunaren pilotari nola erantzun ezin asmatu hasi zinenean, zerbaitek porrot egin zuen zure baitan.

Amaitu zenuten jokoak. Gradetara begiratu zenuen lotsatiki. Eta ez zenuen inor ikusi. Hara begira geratu zinen.

-Aizak, zer gertatzen zaik?...

-...

-Esaidak zeozer!

Larritu egin zitzaizun laguna. Tamalgarria zen zure itxura, jokaldi hartan hamar urte irabazi zenituela esan zitekeen. Kirol poltsa hartuz etxeraino lagundu zintuen adiskideak. Ohe gainera erori zinen, isilik.

-Zerbait nahi al duk?...

-...

-Nahi izanez gero medikuari deituko zioat...

Buruarekin ezetz esan eta begiak itxi egin zenuen.

Orduak ezarian labaindu ziren leihoko pertsiana jausiez bestalde, urre erreko zauri mantsoak luzatuz zurezko zoruan. Zure berunezko betazalen babesean nozitzen ari zinen eraso eziurraz ezajolati. Arratseko zaraten berpizteak gainditu ahal izan zuen zentzumen lokartuen hesia, eta aurpegiko giharrek salatzen zuten sufrimenduan berri bat itsatsi zen. Betazalen higadura perzibigaitz baten bidez gelan nagusi zen itzalen munda barneratu zitzaizun, itzal bakoitzak eguzkiz inguraturiko beste itzal lazkarriago haren oihartzun haunditua zekarrelarik.

Mugagabeko espazioan barrena zindoazen, zainetan bildutako zure eskuek gidaturik, alaitasun zoroaren garraisiez inguraturik, jatorri jakirik gabeko murrailaren kontra jo zenuen arte.

Aldi bakoitzean indar berri batek, gero eta ahulago, projektatzen zintuen, azkenerako zure gorputz gaztigatuaren hondakinak murrailari itsatsirik gelditu ziren arte.

Han, tinko, behin eta berriz zenekusan joan-atorriko ibilbide horren marrazkia espazioan. Hasierako alaitasun hura gorrotatzen hasi zinen, eskuak, begiratzen ez zenuen zerbaitetan gaketuz. Etsipenez kokotsa bularreratu zenuen eta eskuartearen estututako poltsa txiki baten ikusmiran iratzarri zinen.

Gaua argi elektrikoen gatibu zeneko orduan, burua belaunetan gordeta, besoak hankak besarkatuz, zenirauen. Besterik gabe.

Nola lotu ziren gertaerak ez dakizu. Goizean goiz, zuhaitz ahulen parkerantz abiatu zinen, urduri. Aurrerako urrats bakoitza atzeraka izan zedin desiraz. Bakoitza errepika ezina zelaz jabe-

turik. Neurtu nahiez, gozatu. Eta ezin gozatzuz gozatu nahi izateagatik.

Astiro igo zenituen parkera iristeko dauden eskilarak. Hereneguneko banku koloregabetu bera bilatzen zuten zure oinek. Bertan norbait eserita ikustean, «gaur ni baino lehenago iritsi naiz» pentsatu uste izan zenuen lipar batez. Sekula ez bait zenuen inor ikusi banku horretan eserita.

Urrats biren distantziara zeundelarik bankuan eserita zegoenak burua biratu zuen. Bere begi beltz nimiñoek izatearen mamia zauritu zizuten. Agureak poltsa txiki bat estutzen zuen hatz gakotuen artean.

Edaten eman zenituen ondorengo orduak. Etxean. Giltzapean. Esku irristakorren artean altxatzen zenuen botila ezpainetaraino eta urdailetako berotasunak eztarrikoa gainditzean uzten ostera. Besaulki alboan zeneukan telefonoa. Markagailua eragin zenuen behar bezainbat alditan. Baina zuk ezer esan aurretik ahots zaharkitu batek erantzun zizun:

-Ez dago...

-Zer, ez dago? -galdegin zenuen zurea iruditu ez zitzaizun ahotsez.

-Ez dago...

Eta zuk, ahots horren oihartzun bilakatu, errepikatu zenuen:

-Ez, ez dago...

Eskutatik labaindu zitzaizun aurikularra, eta ezpainetan «ez dago» zorigaiztokoa «ez nago» malerus bilakatu zitzaizun. Behin eta berriz ezpainetaratu zenuen botila hustua.

Ameskaiztoen haiduru, begiak odol-hariz trabeskatuak, itzalen dantzek danbatzen zizuten barne-iluntasuna, argi iheskorrezko tximista hegalaria sortuz.

Soinadar herbailduen ahalegin oro suspirio baten erreinuan ilauntzen ziren.

Eskuak, sapairantz altxata, zureak ziren. Eta pentsamenduak eskuenak.

Ohe aurreko aulkian agurea zegoen, zuri beha, eskuartean poltsa txiki bat fermuki estutuz, zuri beha, kupidarekin nahas ez zitekeen

distira alaiez argiturik begiak. Eskuak, zainetan bildutako hezur larruak.

Eta zuk bere presentziaz bezala zeukan berak zurearen berri.

Biok bakarrik zeundeten gela horretan, arnas berdina arnasten, iluntasun hura isiltzen. Horma baten bi aldetara luzatzen zen distantzia berdinean kokaturik bion esperantzak.

Zure ohe alboko mahai txiki gainean zegoen poltsa txikia hartzeko luzatu zenituen eskuak.

Egunargitzen ari zelarik frontoierantz abiatu zinen. Orainaldia adierazi nahi izatean sentitu daitekeenaren antzeko ezintasuna sentituz zure ekintzen zergatia aurkitzen saiatzean.

Aurreko hormaren kontra, lurrean eserita, agurea zegoen. Beharrezkoa ez zen urrats edota mugimendu txikiena bera ere ez zenuen egin zure ibilbide ziurretik at. Beste edozein helburutan tronpa zintezkeen, ez orain gidatzen zintuen horretan.

Bere alboan, bizkarra hormaren kontra pausatuta bezain laister, hari itsasten zintuen indar

erakarleaz jabetu zinen. Hotzak mingostasuna galdu zuen. Eskuartean agurearen poltsa txikia estutzen zenuen, eta zama astun batek tenkatu zituen zure giharre unatuak, esperantzaren zama izan zitekeela pentsatu zenuen orduan. Eta eskuak biltzen zizkizun zainak poltsari lotzen zitzaizkion bitartean nire ahotsa entzun nuen:

-Hemendik aurrera guztia oroitza besterik ez da izango zuretzat. Horma honetatik ikusiko duzu igarotakoaren lurrina handik honaino hedatzen. Igarotako oro izango da gaztaroa, jadanik denbora bait da zure etsairik nagusiena, eta ni, gizaki zaharkitu hau, orainarteko arerio gorrotagarriena, irudimenaren oroimenezko bidaia errepikatu horietan barrena izan dezakezun lagunik maitatuena, itzulerarik gabeko gunea iritsiz gero esperantza delako garraiatu daitekeen zamarik astunena. Eta zu, ni.